



2015 - 2018

Sarrera	
Gazte-diagnostikoaren ezaugarriak eta oinarriak	
Laudioko Udalararen I. gazte-plana lantzeko prozesua: metodologia	
Laudioko gazte-diagnostikoa: egoera arloz arlo	
<ol style="list-style-type: none"><li>1. Lehen ardatza: emantzipazioa eta autonomia<ul style="list-style-type: none"><li>• Hezkuntza</li><li>• Enplegua</li><li>• Etxebizitza</li></ul></li><li>2. Bigarren ardatza: gizartea eta bizi kalitatea<ul style="list-style-type: none"><li>• Osasuna</li><li>• Jendarte-ekintza</li><li>• Kultura</li><li>• Aisialdia</li><li>• Kontsumoa</li><li>• Mugikortasun iraunkorra</li></ul></li><li>3. Hirugarren ardatza: Udala</li></ol>	
Laudioko I. gazte planaren helburuak eta esku-hartze ildoak	



## Sarrera

EAEko III. GAZTE-PLANA oinarritzat hartuta, Laudioko errealitatea eta bertako herritar gazteen (12 eta 35 urte bitartekoen) egoera ezagutzeko helburua dute egin den diagnostikoak eta I. gazte-planaren ildo orokorrek. Prozesu honetan egoera eta testuinguru sozial, ekonomiko, politiko eta kulturala ulertzea, eragiten dizkien arazoak identifikatzea, sailkatzea eta, hortik abiatuta, beharrianak eta hauen garrantzia aztertzea da xedea. Ikerketa-azterketa honen azken helburua Laudioko I. gazte-planaren ildo orokorrak zehaztea izan da.

Gaur egungo gazte politikek zerbitzu espezifikoetatik (aisialdia, hezkuntza ez formala, gazte informazioa, gazte elkartegintza...) politika integraletarantz joan behar dute eta gazteen partaidetzarekin udalerrian bertan garatu behar dira. Txosten honetan enplegua, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, jendarte ekintza, aisialdia, kultura, kontsumoa eta mugikortasun iraunkorra izango dira aztergai nagusiak.

Ikerketa honen bidez Laudioko gazteen errealitatea ezagutzeko urratsak eman nahi izan ditugu. Gazte diagnostiko parte-hartzailea eta I. gazte-planaren ildo orokorrak zehaztean gazteak eta beraiek edo beraiekin lan egiten duten eragileak erdigunean jarri eta ikerketako protagonista bihurtu ditugu. Prozesu honetan Laudioko gazteek, komunitate antolatuek eta Udaleko talde teknikoek hartu dute parte.

Diagnostikotik abiatuta Laudioko I. gazte-plana diseinatzeko lehenengo urratsak emateko helburuak eta esku-hartze ildoak ere finkatu ditugu.

Informazioa biltzeko bide desberdinak erabili ditugu:

1. Informazio bilketa orokorra.
2. Elkarrizketak.
3. Eztabaida tailerrak I.
4. Inkestak.
5. Gazte eragileekin bilerak.
6. Ordezkarri politikoekin eztabaida tailerra.
7. Eztabaida tailerrak II.
8. Panel irekiak.
9. Postontzi birtualak.



## Diagnostikoaren eta I. gazte-planaren ildo orokorren ezaugarriak eta oinarriak

Laudio Udaleko Hezkuntza, Berdintasuna eta Gazteria Arloak 2013. urtean I. GAZTE-PLANA zehazteko lanari ekin eta gazte-plana aurrera emateko oinarri hauek finkatu zituen:

- Laudio Udala gazteria arloan **beharrak eta lehentasunak** finkatzeko lanean hasi da.
- **Gazteekin eta gazteentzako** plana izan nahi du. GAZTEAK protagonista dituena.
- Plana diseinatzeko tresna izan da parte-hartze aktiboa.
- Udala eta herriko gazteen arteko harremana dinamizatzeko **bitartekaritza**-lana Urtxintxa Eskolak egin du.



Euskadiko III. gazte-planaren barruan, 2020rako marko orokorrak zehazten duen bezala, udal gazteplana **tresna malgu, zabal eta dinamikoa** da, Hezkuntza, Berdintasuna eta Gazteria Arloak aurrera eraman beharreko ildo, programa eta jarduerak zehazten **dituena**. Gazteplanak gazteei zuzenduta egiten diren **ekintzak koordinatu eta artikulatuko** lituzke, helburu eta jarduera-lerroak ezarriko dituen esku-hartze esparru komun baten barruan, parte-hartzea oinarri izanik.



### Laudioko I. gazte-planaren helburuak:

1. **Udal** zerbitzuetatik bideratzen diren **ekintza, programa eta zerbitzu** berriak **koordinatu eta artikulatzea**.
2. Behar errealei erantzun egokia emateko eta biderkatzeak ekiditeko egiten da gazte-plana, horrela **ahaleginak eta baliabideak hobeto aprobetxatzeko**.
3. **Gazte-ikuspegia zeharkakotasunez** sail guztietan **txertatzea**, programatzen diren ekintza guztietan.
4. Gazteria-politika integralean **gazteen, eragile sozialen eta administrazioaren parte-hartzea** sustatzea.
5. Herriko **gazteen egoera** eta Udal arlo desberdinetatik eurentzat antolatzen diren zerbitzu eta programak ezagutzea.

### Laudioko I. gazte-planaren oinarriak:

#### ZEHARKAKOTASUNA

Udaletako arloek aurrera eramandako lerro eta neurrien inguruko **orientazio eta koordinazio** gisa ulertuko da, hau da, biztanle talde jakin batzuetan espezializatuta dauden arloen eta jarduera-sektore jakin batzuetan oinarrituta daudenen arteko koordinazioa eta orientazioa.

#### INTEGRALTASUNA

Gazteak jendarte-, politika-, ekonomia-, ingurumen- eta kultura-esparruetan txertatzea; txertatzeko neurriak artikulatzeari dagokionez, jendarte osoaren eta, bereziki, **udalen eta jendarte-eragileen inplikazio** gisa ulertu behar dira.

#### GAZTE IKUSPEGIA TXERTATZEA

**Gazte-ikuspegia** txertatuko da udaletako politika eta ekintza guztietan, halako moduz non horietan guztietan **desberdintasunak ezabatzeko** eta gazteen emantzipazioa sustatzeko helburu orokorra ezarriko baitute.

#### ELKARLANA ETA KOORDINAZIOA

Udalak gazte-politikak garatzean **elkarlanean** arituko dira, euren **jarduketak koordinatuta**, esku-hartzeak eraginkorragoak izan daitezen eta baliabideen erabilera arrazionalarekin bat etor daitezen. Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko nahiz kanpoko beste instituzio eta erakundeen arteko koordinazioa eta elkarlana sustatuko da, bereziki ekimen sozialarekiko.



## **PARTAIDETZA**

Udalak gazteen partaidetza izango du ardatz gazteentzako politika eta baliabideak taxutu eta abiarazteko, horien diseinuak **gazteen eskari eta igurikapenetara egoki** daitezen.

### **Gazte-plan parte-hartzailea diseinatzeko gakoak:**

Parte-hartzeari garrantzi berezia eskaini zaio, herriko eragileak ahaztu gabe, gazteak proiektuaren erdigunean jarrita. Horretarako ezinbestekoa izan da:

- Gazteriaren errealitatetik abiatzeko, **gazteen iritziak, beharrak eta ideiak** identifikatzea.
- Prozesuaren **diseinutik** (nola, noiz, norekin, non...) hasita, gazteen inplikazioa sustatzea.
- Erakunde eta instituzioekin batera bide berean lan egin ahal izateko herriko **gazte eragileen** inplikazioa.
- Etorkizunean helburu komunetan **elkarlana** ahalbideratzeko eta bultzatzeko balio dezake prozesuak.

### **Egin diren urratsak:**

Laudion I. gazte-planaren ildo orokorrak garatzeko hurrengo pausoak eman ditugu:

<b>1. Urratsa:</b> Gazteria Arloan beharra detektatu eta erronkari ekin.
<b>2. Urratsa:</b> bitartekaritza profesionala: Urtxintxa Eskola.
<b>3. Urratsa:</b> herrian komunikazio-kanpaina hasi.
<b>4. Urratsa:</b> talde eragilearen sorrera.
<b>5. Urratsa:</b> diagnostikoa: <ul style="list-style-type: none"><li>- Banakako elkarrizketak.</li><li>- Datu kuantitatiboen bilketa.</li><li>- GazTertuliak.</li><li>- Hezkuntza zentroetan eztabaida tailerrak.</li><li>- Postontziak herrian zehar.</li><li>- Inkestak interneten bidez.</li><li>- Inkestak lonjetan.</li><li>- Inkestak ikastetxeetan.</li></ul>



- Galdeketak eta bilerak gazte eragileen artean.
<b>6. Urratsa:</b> proposamen-fasea. <ul style="list-style-type: none"><li>- Eragile politikoekin tailerra.</li><li>- GazTertuliak.</li><li>- Panel irekiak.</li><li>- Postontzi birtuala.</li></ul>
<b>7. Urratsa:</b> Laudioko I. gazte-planaren ildo orokorrak.

### **TALDE ERAGILEAREN SORRERA:**

Talde eragilea diagnostiko parte-hartzailearen bultzatzaile nagusia izan da. Prozesuaren nondik norakoak zehaztea izan da bere eginkizuna Urtxintxa Eskolarekin eta Udal taldearekin elkarlanean. Talde honen izaerak ikuspegi aniztasuna bermatu du eta errealitatearekiko ezagupen zehatzagoa eskaini digu.

Talde eragilearen funtzioak honakoak izan dira:

- Diagnostikoa berrikustea, jarraipena egitea eta baloratzea.
- Proiektuaren diseinuari ekarpenak eta proposamenak egitea.
- Ikuspegi eta pentsamolde aniztetasun gazteek sentitzen edo nabaritzen dituzten beharrak prozesuaren diseinuan txertatzea.
- Prozesuaren jarraipena eta etengabeko ebaluazioa.

2013ko irailean gonbidapenak egin ziren eta taldea urrian jarri zen martxan. Talde eragilea 9 pertsonaz osatu da eta bileretan 6-8 pertsonak hartu dute parte. Hau izan da osaera: udal ordezkari politikoak, Gazteria Arloko udal teknikaria, gazte ez antolatutakoak, gazte eragileak eta Urtxintxako dinamizatzaileak.

Gaur egun, aur- eta gazte-politikek zerbitzu espezifiketatik (aisialdia, hezkuntza ez formala, gazte informazioa, gazte elkartegintza...) politika integralerantz joan behar dute eta udalerrian garatu behar dira, gazteen parte hartzearekin. Eusko Jaurlaritzako Gazteria Sailak zehaztu bezala, enplegua, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, jendarte-ekintza, aisialdia, kultura, kontsumoa eta mugikortasun iraunkorra izan dira diagnostikoan aztertutako gai nagusiak. Udalaren inguruan agertutako kezka eta hausnarketa kopurua kontuan izanda, aipatutako gaiak lantzeaz gain, Udala bera ere aztergai izan da diagnostiko honetan.

Txosten honetan ditugu diagnostikoaren barruko ekintzetan jasotako laburpena eta horien ondorioak. Ondorio hauek informazio-bilketatik, egin diren 20 elkarrizketatik eta aurrera



eraman diren 4 eztabaida saioetatik jaso ditugu. Ondoren, bigarren fasean, hau da, proposamenen fasean, ekintzen laburpena aurkeztu dugu, ateratako ondorioak ere jasota utzirik.

Diagnostiko honetan, informazioa biltzeko hainbat bide erabili ditugu:

1. **Informazio-bilketa orokorra:** Laudioko gazteen demografiaren, langabeziaren, etxebizitzaren, kultur elkartearen, kirol instalazioen, hizkuntza erabileraren eta abarren inguruko datuak bildu dira. Hausnarketan lagundu ahal izateko, txosten honetan gai bakoitzaren datu orokor batzuk txertatu ditugu.
2. **Elkarrizketak:** 22 elkarrizketa egin dira. 5 gazteri (12-35 urte bitartekoak), 7 eragileri (ikastetxe bateko orientatzailea, gurasoa, sexologia zerbitzuko hezitzailea, Gaztelekuko arduraduna, Jaiak Koordinakundea, kiroldegiko arduraduna, eguneko zentroko hezitzaileak) eta Udaleko 10 teknikariri (euskara teknikaria, Immigrazio Arloko langilea, Hirigintza eta Ingurumen Arloko teknikaria, Kultura Arloko teknikaria, Gizarte Ongizate Arloko teknikaria, Hezkuntza, Berdintasun eta Gazteria Arloko burua, Garapen Agentziako teknikaria, udal arkitektoa, udaltzainburua eta Gazteria Arloko teknikaria).

Gazteak aukeratzeko kontuan hartu ditugun aldagaiak hauek izan dira: adina (12-17 urte, 18-24 urte eta 25-35 urte), ikasketa maila (oinarrizkoak, erdi mailakoak edo goi mailakoak), sexua (emakumea, gizona), jatorria (Euskal Herrian edo kanpoan jaiotakoak) eta Laudioko ingurune desberdinetan bizi direnak (herrigunean, auzoetan...). Baldintza horiek kontuan izanik, zerrenda bat osatu zuen Gazteria Zerbitzuko teknikariak eta ezaugarriak betetzen zituzten gazteak elkarrizketak egitera gonbidatu zituzten. Elkarrizketak maiatzean zehar egin ziren.

*Gazteak:*

	<b>Perfil orokorra</b>	<b>Adina</b>	<b>Generoa</b>	<b>Bizilekua</b>	<b>Ikasketak</b>	<b>Lan egoera</b>	<b>Jatorria</b>
<b>1</b>	Gaztea	12-17 urte	Mutila	Herrigunea	Oinarrizkoa	Ikasten	Etorkina
<b>2</b>	Gaztea	12-17 urte	Neska	Landa ingurunea	Oinarrizkoa	Ikasten	Bertakoa
<b>3</b>	Gaztea	18-24 urte	Neska	Herrigunea	Erdi maila	Lanean	Bertakoa
<b>4</b>	Gaztea	18-24 urte	Mutila	Herrigunea	Goi maila	Langabezian	Bertakoa





5	Gaztea	25-35 urte	Mutila	Landa ingurunea	Erdi maila	Langabezian	Bertakoa
6	Gaztea	25-35 urte	Neska	Herrigunea	Goi maila	Lanean	Etorkina

Eragileei dagokienez, eremu desberdinetan diharduten eragileen zerrenda egin eta horren arabera elkarrizketa egiteko gonbidapena luzatu zitzaien. Aukeraketa egiteko, kontuan izan genituen lan-eremuak hauek izan dira, besteak beste: hezkuntza, kirola, kultura, jendarte-zerbitzuak, lana eta aisialdia. Horiez gain, guraso baten ikuspegia ere txertatzea oso interesgarria iruditu zitzaigun.

*Eragileak:*

	Perfil orokorra	Adina	Generoa
7	Hezkuntza: orientatzailea	Helduak	4 mutil eta 5 neska
8	Gaztelekuko arduraduna	Helduak	
9	Kirol entrenatzailea	Helduak	
10	Kale hezitzailea	Helduak	
11	Gurasoa	Helduak	
12	Behargintzako gazteen arloko arduraduna	Helduak	
13	Jendarte zerbitzuetako teknikari bat: droga-menpekotasuna.	Helduak	
14	Kafe Antzokiko arduraduna	Helduak	
15	Sexualitate Zerbitzuko arduraduna	Helduak	


1. **Eztabaida tailerrak:** Laudioko gazte kolektiboaren beharrian eta lehentasun nagusiak zeintzuk diren taldean aztertzea eta adostea proposatu genuen. Horretarako, adinaren araberrako eztabaida talde desberdinak antolatu ziren. Bilera parte-hartzaile horietan, Laudioko gazteriaren egoeraren inguruan hausnartzeko ariketa egin behar izan zuten gazteek.

Talde horien helburua izan zen Laudioko gazte eta herritarrek gazteen egoeraren inguruan dituzten usteak, jarrerak eta jokaerak ezagutzea. Taldeetan dinamika parte-hartzaile, integratzaile eta aktiboak aplikatuta, gai ugariaren inguruan hausnartu eta eztabaidatu zen.

Gazteak, gazte eragileak, gazte koadrilak etab., gonbidatu ziren eztabaida taldera. Gonbidapena sarearen bidez eta euskarri fisikoen bidez zabaldu zen arren, aurrez aurreko gonbidapenei eman zitzaien garrantzia, baina deiak ere egin ziren eta



WhatsApp mezuak bidali ziren. Sare sozialei ere garrantzi berezia eman zitzaien. Horretarako Toka Noka profila erabili zen.



Guztira, 4 eztabaida-tailer egin dira. Eztabaida-tailerrak 12-17, 18-24 eta 25-35 adin taldeetan banatu dira; era horretan, adin tarte bakoitzeko nahiak eta beharrak ezagutzeko aukera izan dugu. Bestalde, 2 ikastetxetan 2 eztabaida tailer egin ditugu, bata DBH3ko ikasleekin eta bestea Batxilergoko 2. mailako ikasleekin. Guztira 75 gaztek hartu dute parte saioetan.

2. **Inkesta:** 24 galdera itxiz osatu da. Bertan, 1etik 6rako puntuazioaz erantzun behar diren galderak ageri dira, hainbat gairen ingurukoak. 1 zenbakiak *Ez nago batere ados* esanahia du eta 6 zenbakiak *guztiz ados nago*. Galdera guztien azpian iritzia emateko tarte utzi da.

Inkestaren diseinua (galderen forma eta edukia) talde eragilean adostu zen, gazteen, udaleko teknikariaren eta Urtxintxako dinamizatzaileen artean.

Guztira, 452 inkesta jaso ditugu bide desberdinetatik. Gazteen iritzia zuzenean eskuratzeko, herrian zehar 10 postontzi kokatu genituen (Gardeako Kultur Etxean, Aretako Kultur Etxean, Keska tabernan, Kaia tabernan, gaztetxean, Indriskan, tabernan, gaztelekuan,



liburutegian, polikiroldegian eta kultur etxean). Horiez gain, gazteen lokaletan ere 62 inkesta betetzea lortu genuen. Zenbait ikastetxetan (Institutuan, Ikastolan eta Lanbide Heziketako Udal Ikastetxean) ere kokatu ziren postontziak eta zenbait geletan inkesta bete zen zuzenean. Orotara, bide horretatik, 184 inkesta jaso dira. Bukatzeko, 118 lagun animatu dira NokaToka profilarekin Facebook bidez modu digitalean inkesta betetzera.



Esan bezala, 452 inkesta jaso ditugu guztira. Horietatik, 184 inkesta 12-17 urte bitarteko gazteek bete dituzte; 18-24 urte bitarteko gazteek 89 inkesta eta 25-35 urte bitarteko gazteek 115 inkesta bete dituzte. Aipatu behar da 18 inkesta 35 urtetik gorako pertsonak bete dituztela eta 46 inkestatan parte-hartzaileek ez dutela euren adina zehaztu.

Generoari dagokionez, inkesta bete duten gazteen %53 emakumezkoa izan da, %36a gizonezkoa eta %11ak ez du generorik zehaztu.

3. **Bilerak gazte eragileekin:** kontuan izanda Laudioko gazte asko gizarte-eragile aktiboak direla, elkarrekin antolatuta daudela eta Laudioko gazteriaren artean erreferente direla, hainbat bilera eta galdeketa egin ditugu eurekin. Guztira, 3 galdeketa edo bilera burutu ditugu (Emaion talde feminista, Gazte Asanblada eta Ernai). Beste zenbait eragilerekin ere biltzen saiatu gara, esaterako, baina atzetik ibili bagara ere, ezinezkoa izan da haiekin elkartzea.
4. **Udal teknikariek bilera:** Udalak bultzatzen duen gazte-diagnostiko batean ezinbestekoa da udal arlo desberdinetako teknikariek prozesuaren berri ematea eta prozesura batzeko gonbidapena luzatzea. 2013ko apirilean, arlo guztietako teknikariek irekitako bilera egin zen, xede horrekin. Bertan, proiektua aurkezteaz gain, Udalean gazteentzat egiten diren ekintza, proiektu eta programen inguruko informazioa jasotzeko dinamika ere aurkeztu zen.


Halaber, inkesta horren emaitzak jaso dira txosten honetan eta Udala atalean laburtu.

Proposamenen fasea 2014ko martxo aldean hasi zen. Diagnostikoan, gazteen egoeraren berri jaso genuen, ondoren, proposamenen fasean, etorkizunera begira eman beharreko




pausoak zeintzuk izan behar ziren definitzen hasteko. Fase horretan batu genituen gazteen ideiak eta nahiak zein politikarien ondorioak, Laudioko I. gazte-planaren ildo orokorrak zehazteko. Proposamenen fasean bideratutako ekintzak hauek dira:

1. **Ordezkarri politikoekin tailerra:** 2014ko urtarrilaren 20an ordezkari politikoekin eztabaida-tailer bat egin zen. Tailer honetan Bildu, EAJ eta PSE-ko ordezkariak hartu zuten parte. Saio horretan, diagnostikoaren emaitzetatik abiatuta etorkizunean eman beharreko pausoak identifikatzeari ekin genion.
2. **Proposamenak eztabaidatzeko tailerrak:** diagnostikoan identifikatu ziren gai desberdinen inguruko proposamenak jasotzea zen eztabaida-tailerren helburua. Talde eragilean bi eztabaida talde egitea proposatu zen, bata 12-17 urte bitarteko gazteentzat eta bestea 18-35 urte bitarteko gazteentzat. Eztabaida-tailer horiek ezin izan ziren egin, parte-hartzaile faltagatik .
3. **Panel irekiak:** herrian zehar 9 panel ireki kokatu dira “Noka Toka gazte zure ideia bota!” lelopean. Gazteak biltzen diren tokietan kokatu genituen panelak: Gaztelekuan, Kultur Etxean, Polikiroldegian, La Milagrosa ikastetxean, Lanbide Heziketako Udal Ikastetxean, Laudioko Ikastolan, Laudioko Institutuan, gaztetxean eta liburutegian. Panel horien bidez 200 proposamen baino gehiago jaso dira.



4. **Postontzi birtualak:** Facebook-eko "Noka Toka" profilaren bidez diagnostikoaren ondorioak zabaltzeaz gain, gazteek ideiak plazaratzeko eta ekarpenak egiteko espazioa ere izan zen.



## Egoera arloz arlo

### 1. DATU OROKORRAK:

Laudio Arabako ipar-mendebalean dagoen udalerria da, Aiaraldea eskualde edo koadrilakoa. Industriagune garrantzitsua dugu Laudio eta Arabako bigarren herririk populatuena da, Gasteiz ondoren.

Laudion 18.428 biztanle bizi dira guztira; horietatik % 51 emakumezkoak dira eta % 49 gizonezkoak. Biztanle-dentsitateari dagokionez, kilometro karratuko 490 biztanle izanda, Arabako eta EAEko batz bestekoetatik gora dago Laudio.

Populazioak azken hamarkadan izan duen bilakaerari erreparatuta, hiru ziklo ikusi ditzakegu. Lehendabizikoan, 2004 eta 2008 urteen artean, populazioa 18.721 biztanletik 18.276 biztanletara jaitsi zen. Bigarren zikloan, 2008 eta 2013 urteen artean, populazioa 18.314tik 18.510ra igo zen. Populazioaren neurketa egin zen azken urtean, 2014an, populazioaren gainbehera berriz hasi den ziklo batean sartu garela ikus dezakegu. Gaur egun, populazioa 2010. urteko kopuruetatik hurbil dago. Laudion EAEko fenomeno berdina ematen da.

#### Laudioko 12 eta 35 urte bitarteko populazioa

Adina	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Guztira	%Gizonezkoak	%Emakumezkoak
<b>Guztira</b>	2.020	1.899	3.919	51,54	48,46

Iturria: Laudio Udala (2015)

Laudion, 12 eta 35 urte bitarteko 3.919 gazte daude. Horietako % 51,54, 2.020, gizonezkoak dira eta % 48,46, 1.899, emakumezkoak.


Datuak adinez adin aztertuta, emakume zein gizonetan, gazteen kopuru zabalena 35 urte dutenen belaunaldian dago; aitzitik, kopuru txikiena 17 urteko belaunaldi berrietan kokatzen da.

Laudioko populazioaren batez besteko adina 44,8 urtekoa da. Beraz, ezin dugu esan Laudioko populazioa gaztea denik.

Laudioko 18.564 biztanleetatik 198 etorri berriak dira, baina ezin ditugu ahaztu Laudiotik arrazoi ezberdinengatik joan direnak ere. Etorri berrien kopurua Laudioko biztanleriaren % 4,81 da. EAEko datuekin alderatuta, kopurua txikiagoa da, 2013an etorri berrien kopurua



% 6,8 baitzen. Hori dela eta, Laudiora ematen diren migrazioak txikiak direla esan dezakegu, EAEan bezala.



Iturria: Estatistika Institutu Nazionala (EIN), 2015.

Laudioko migrazio-mugimenduak 2008tik 2013ra			
Urtea	Emigrazioa	Immigrazioa	Migrazio saldoa. Guztira
2013	130	162	-127
2012	120	166	10
2011	137	184	2
2010	119	204	33
2009	163	214	-85
2007	149	228	123
2008	156	228	61

Iturria: EUSTAT (2015)





## 2. EMANTZIPAZIOA ETA AUTONOMIA ARDATZA

### 2.1. HEZKUNTZA

Hezkuntza-politikek eragin zuzena dute gazteen bizi-ibilbideen eta bizi-proiektuen oinarrizko alderdietan. Hori dela eta, gazte-politiken artean, garrantzitsuenetakoa dugu hezkuntza-politika.

Izan ere, ikasketek eta ikasketetan lortutako emaitza akademikoek pertsonok lan-munduan izango ditugun aukerak baldintzatzen dituzte. Gauza bera esan dezakegu hezkuntzaren zentzu zabalenari helduta, hau da, nortasuna eta pertsonaren garapena sortzen duten jakintzak, trebetasunak eta jokabideak barneratzeko prozesu gisa hartzen badugu. Atal honen helburua izango da hezkuntza formala eta ez formala lantzea.

Hauek dira Laudioko ikastetxeak:


- Ikastetxe publikoak:
  - Fabian Legorburu IP.
  - Lamuza IP.
  - Lateorro IP.
  - Laudio BHI.
  - Lanbide Heziketako Udal Ikastetxea.
  - Helduen Hezkuntza Iraunkorra.
- Itunpeko ikastetxeak:
  - La Milagrosa Ikastetxea.
  - Laudioko Ikastola.
- Bestelakoak: Udal Euskaltegia eta AEK.

Laudion 3.654 ikasle daude, hau da, populazioaren % 20 dago matrikulatuta. Horietatik 2.050 ikaslek, % 56ak, D ereduan ikasten du eta A ereduan ikasten dutenen kopurua ere nahiko altua: 831 ikasle, hau da, ikasleen % 23. B ereduan, aldiz, 773 ikasle daude, hau da, ikasleriaren % 21. Datu horiek ikusirik, euskararen gaitasun mailari dagokionez, Laudion euskara dakitenen eta ez dakitenen arteko dikotomia-arriskua dagoela ondoriozta daiteke, izan ere, azken azterketen arabera, B ereduan ikasitako ikasleen % 67ak ez baitu euskara ondo jakitea lortzen.





**Laudioko ikasle kopuruak hizkuntza-ereduaren arabera (2013-2014 ikasturtean)**



Iturria: Laudio Udala (2015).

Ikastetxeen titulartasunari helduta, ikasleen % 62ak, alegia, 2.272 ikaslek ikastetxe publikoen sarean ikasten du eta ikasleen % 38ak, alegia, 1.382 ikaslek itundutako ikastetxeen sarean.


<b>Laudioko ikasle kopuruak hezkuntza-mailaren arabera (2013-2014 ikasturtean)</b>	
Haur hezkuntza	794
Lehen Hezkuntza	1047
DBH	736
Batxilergoa	336
Zikloak	414
HLPP	66
HHI	261
GUZTIRA	3.654

Iturria: EUSTAT (2015)

Hezkuntza mailari begiratuta, aipatu behar da gazte askoren ibilbide akademikoa unibertsitatean amaitzen dela. Populazioaren % 40,76ak lehen mailako ikasketak ditu, % 18,80ak lanbide-heziketako ikasketak, % 18,72ak bigarren hezkuntzako ikasketak, % 6,73ak



erdi edo goi mailako ikasketak eta % 12,03ak goi mailakoak. Azkenik, ikasketarik gabekoak populazioaren % 2,49 dira eta alfabetatu gabeak %0,45.



Iturria: EUSTAT (2015)



### **2.1.1. Laudioko herritarren pertzepzioak:**

#### **a. Hezkuntza formala**

Orokorrean, hezkuntza formalaren inguruan bildutako iritzietan gazteek ikasketetan jarraitzen duten ohiko bidea DBH eta Batxilergoa egin ostean unibertsitateetara doana da. Badira goi mailako moduluak egiten dituztenak ere. Erdi mailako moduluak egiten dituztenak edo zuzenean jartzen direnak lanean gutxiengoa dira.

Hezkuntza formalaren esparruan, Laudioko gazteen artean identifikatutako behar nagusietakoa izan da Hezkuntza Eskola bat sortzearena. Gazteek lana eskuratzeko ezaugarri garrantzitsu gisa identifikatu dute hezkuntza-gaitasuna eta hori instituzio publikoetatik sustatu beharreko zerbait dela azpimarratu dute.

Eragileen iritziz, Udalak gazteentzako ikasketa proiektu desberdinak jarri beharko lituzke martxan. Gaur egun, zenbait egitasmo daude (droga-menpekotasunaren edota indarkeriaren ingurukoak, adibidez), mantendu beharrekoak.

Familien eta hezkuntza zentroyen arteko ikuspegi-desberdintsaunak ikusten dira gazteak hezteko moduei dagokienez eta horrek hezkuntzako profesionalen lana zailtzen du.

#### **b. Hezkuntza ez-formala**

Hezkuntza ez-formal gisa hezkuntza ez arautua ulertzen dugu: herrian dauden ikastaroak, tailerrak... Kasu honetan, Laudio Udalak eskaintzen dituen ikastaro eta tailerrak aztertu ditugu.

Gazteen iritzia orokorrean antzekoak izan dira eta gehienek eskaintza eskasa edo erdipurdikoa dela aipatu dute.


12-17 urte bitarteko gazteen artean, % 25ak gaizki baloratu du eskaintza, % 32ak eskasa edo erdipurdikoa dela deritzote. 18-24 urte bitartekoen artean, % 26ak uste du erdipurdikoa dela eta beste % 26ak nahiko ondo dagoela deritzo. 25-35 urte bitarteko gazteen kasuan, balorazio orokorra erdipurdikoa da: %68ak gaizki edo erdipurdi dagoela esan du.



Iritzien artean gehien errepikatzen dena da orokorrean eskaintza haur eta helduei bideratua dagoela, baina ez gazteei. Iritzi horretako pertsonen ustetan, gazteen interesak eta nahiak alde batera uzten dira eta beste kolektibo batzuei ematen zaie lehentasuna. Horrekin batera, gaztetxoenen artean, informazio falta azpimarratu da. Gazte askok pentsatzen du hezkuntza ez-formalaren esparruan Udalak ez duela eskaintzarik.

## 2.2. ENPLEGUA

Jendarteko eremurik garrantzitsuena edo garrantzitsuenetakoa da enplegua, eragin handia baitu jendarte-nortasunak eratzeko prozesuan eta gazteen emantzipazio-ibilbideetan. Gainera, lotura handia dago enplegua lortzeko aukeren eta lan-munduan sartzeko asmoz egindako ikasketen artean (lanbide heziketari eta unibertsitateko ikasketei erreparatuta).



Iturria: Lanbide (2015)


Azken urtean, EAEan bezalaxe, langabezia-tasak gora egin du Laudion eta Aiaraldean. Lanbideko datuen arabera, 25 urtetik beherako gazteen artean erregistratutako pertsona gehienak emakumezkoak dira; 25-34 urte bitartekoaren artean, aldiz, gizonezkoak dira gehiengoak. Dena den, kontuan hartu behar da emakume kopuru handi bat etxeko lanetan eta zaintza-lanetan aritzen dela. Datu horiek ezagutzen ez ditugunez, ondoriozta dezakegu soldatarik gabe bizi diren emakumeen kopurua gizonena baino altuagoa izango dela.



Langabezia-tasa (adin eta sexuaren arabera)							
		<25 urte			25-34 urte bitartean		
	Hiruhilekoa	1º-12	1º-13	%	1º-12	1º13	%
<b>Laudio</b>	Gizonak	68	73	7,4	200	249	24,5
	Emakumeak	65	87	33,8	181	219	21,0
	Guztira	133	160	20,3	381	468	22,8
<b>Aiaraldea</b>	Gizonak	152	147	-3,3	367	444	21,0
	Emakumeak	123	152	23,6	359	412	14,8
	Guztira	275	299	8,7	726	856	17,9

Iturria: Lanbide (2015)

Bestalde, 2012tik 2013ra langabeziak izandako gorakada azpimarratu behar da. Laudioaren eta Aiaraaldearen arteko desberdintasunak aztertzen baldin baditugu, ikus dezakegu Laudion Aiaraaldean baino langabezia-tasa altuagoa dagoela. 2013ko lehenengo hiruhilekoan, Laudioko langabezia-tasa % 22,8 zen eta Aiaraaldean % 17,9.



Iturria: Lanbide (2015)

Langabezia-tasak ikasketa mailarekin duen korrelazioari dagokionez, 2012 eta 2013 urteetan ikasketa maila baxuko pertsonak dira langabezia gehien pairatzen dutenak, % 44,1, hain zuzen ere.



Bigarren datu esanguratsuena da oinarrizko ikasketak dituzten pertsonen langabezia-tasa ere altua dela, langabezia daudenen %33,9 sartzen baita multzo honetan.

Bestalde, alfabetatu gabeko langabetuak gutxi izatea, gaur egun alfabetatu gabeko pertsonen kopurua baxua izateari zor diogu.

Langabezia-tasa eta kontratu moten arteko korrelazio-datuak aztertzen baditugu, gazte izatearen eta iraupen laburreko kontratuen arteko harremanaz ohartuko gara.

<b>Laudion ematen diren kontratazio kopuruak, kontratuaren arabera eta adinaren arabera (2012)</b>				
<b>Kontratu mota</b>	<b>&lt;20</b>	<b>20-24</b>	<b>25-29</b>	<b>30-44</b>
<b>Ohiko denbora mugagabekoa</b>	0	3	13	43
<b>Mugagabea lanaldi osoan</b>	0	1	2	1
<b>Aldi baterako kontratua</b>	0	5	2	22
<b>Jarraitasunik gabeko lan finkoa</b>	0	1	0	1
<b>Lanaldi osoa: obra edo zerbitzu jakinean</b>	9	156	169	390
<b>Lanaldi osoa: behin behineko produkzio-gorabeherengatik</b>	15	202	464	844
<b>Lanaldi osoa: ordezkapenengatik</b>	0	62	112	169
<b>Lanaldi osoa: trebakuntza</b>	0	16	8	1
<b>Praktiketarako kontratua</b>	0	2	3	1
<b>Lanaldi osoko txandakako lan kontratua</b>	0	1	3	6
<b>Beste batzuk</b>	5	0	1	3
<b>Aldi baterako kontratuak mugagabe bihurtzea</b>	0	18	28	49
<b>Aldi baterako kontratuak lanaldi osorik gabe</b>	31	219	260	429
<b>GUZTIRA</b>	60	686	1.065	1.958

Iturria: Laudio Udala (2015)

20 eta 24 urte bitarteko gazteen artean sortutako kontratu gehienak lanaldi osokoak dira, baina obra edo zerbitzu mugatu baterako eta behin behineko produkzio gorabeheren arabekoak dira.


25 eta 44 urte bitarteko datuak aztertuta ikus daiteke lehen aipatutako kontratu motez gain, ordezkapenengatik eginiko kontratuak ere esanguratsuak direla.



Azkenik, azpimarratu behar dugu adin guztietan aldi baterako lanaldi osorik gabeko kontratuak oso esanguratsuak direla.

<b>Lan eskaerak Laudion adinaren arabera (2013)</b>						
<b>Adina</b>	<b>Eskaerak adinaren arabera</b>			<b>Langabetuek egindako eskaerak</b>		
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
<b>&lt;20</b>	11	20	31	9	12	21
<b>20-24</b>	77	93	170	53	56	109
<b>25-29</b>	140	143	283	106	99	205
<b>30-34</b>	142	184	326	113	121	234
<b>Adina</b>	<b>Eskaerak populazio osoaren arabera (%)</b>			<b>Langabetuek egindako eskaerak populazio osoaren arabera (%)</b>		
	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira	Emakumezkoak	Gizonezkoak	Guztira
<b>&lt;20</b>	% 1,1	% 1,5	% 1,3	% 1,2	% 1,3	% 1,3
<b>20-24</b>	% 7,4	% 7,2	% 7,3	% 6,9	% 6,3	% 6,5
<b>25-29</b>	% 13,5	% 11,1	% 12,1	% 13,7	% 11,1	% 12,3
<b>30-34</b>	% 13,7	% 14,2	% 14,0	% 14,7	% 13,5	% 14,1

Iturria: Lanbide (2015)



Iturria: EUSTAT (2015)

Lan-eskaeren datuak adinaren arabera aztertuta, Laudion 2013an 30 eta 34 urte bitarteko gazteak dira eskaera gehien egin dituztenak, guztira, populazioaren % 14,1 baitira. Lan-



eskatzailen jatorriari dagokionez, estatu barrukoez gain, esan dezakegu Europatik, Afrikako iparraldetik nahiz Amerikako erdialdetik eta hegoaldetik etorritakoak dira.

Lan sektoreari erreparatuta, lan-eskaera gehienak zerbitzuen sektoreko langileetatik datoz; eskaeren % 64,8 dira.

Ikasketa mailari dagokionez, oinarrizko ikasketak dituztenak dira eskatzailen artean gehien nabarmentzen direnak. Hala ere, aipatu behar da Lanbide Heziketa eta unibertsitateko ikasketak dituztenen artean ere eskaera kopurua esanguratsua dela.

Erregistratutako langabezia-tasa orokorra % 13,4 izan zen 2012an. Emakumezkoek gizonezkoek baino langabezia-tasa altuagoa dute, % 14,2 hain zuzen ere. Gazteen kasuan, langabezia-tasa %10ekoa da, tasa orokorra baino txikiagoa, nahiz eta, kasu honetan, 18 eta 30 urte bitarteko gazte asko oraindik ere ikasten ari direla azpimarratu behar den eta, beraz, ez diren oraindik lan-munduratu.

Jarduera-sektoreei dagokionean, zerbitzuak dira nagusi, langile gehienek zerbitzuetan lan egiten dute. Nekazaritza, aldiz, jarduerarik txikiena da. Lurraldearekin alderatuta, Laudioko kasuan, oso nabarmena da Araban erregistratutako 696 nekazarietatik 37 soilik direla Laudiokoak.

### **2.2.1. Herritarren pertzepzioak**

Laudioko gazteek lanarekiko duten pertzepzioa nahiko negatiboa da. Orokorrean, gazteei lanpostu bat lortzeko baldintza gehiegi (lan esperientzia handia, ikasketak...) eskatzen zaizkiela aipatzen da. Bestalde, ez dira batere baikorrak Laudion edo Aiaraldean lana topatzeko perspektibarekin. Emandako iritzien artean, gazteek azpimarratzen dute Laudio herri industrialak izanik ere, industria horrek behera egin duela. Zentzu horretan, lehen gazteek fabriketan lan egiteko aukera gehiago zituztela diote. Gaur egun, ordea, fabriketan lanpostu egonkor bat lortzeko aukerak oso txikiak dira euren iritziz. Halaber, pertzepzio orokorra da lana lortzen duten gazte gehienak hirugarren sektorean aritzen direla.

Lana topatzea bideragarria ikusten ote duten galdetuta, gazte gehienek erantzuna ezezkoa da. 12 eta 17 urte bitarteko gazteen artean, % 21ak apur bat gaizki ikusten du, 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, % 43ak oso gaizki edo gaizki ikusten duela adierazi du eta 25 eta 35 urte bitarteko gazteen artean, % 46ak oso gaizki edo gaizki ikusten du. Horrek adierazten digu adinak gora egin ahala lana topatzea zailagoa ikusten dutela gazteek.





Lan baldintzei dagokienez eta gazteen iritziz, lan-baldintzak txarrak edo oso txarrak dira. Laudion edo Aiaraldean lana topatzea posiblea dela pentsatu arren, lanpostu hipotetiko hori egonkorra izateko aukera gutxi dagoela diote. Gainera, ikastea eta lan egitearen arteko bateraezintasunarengatik, lan bat eskuratzeko zailtasunak areagotzen direla uste dute.

Eragileei dagokienez, arlo honetan gazteentzako egitasmo ugari bideratzen direla uste dute (Garapen Agentziatik), baina, hala ere, langabetu gehienak gazteak eta 45 urtetik gorakoak izaten jarraitzen dutela.

### 2.3. ETXEBIZITZA

Gazteen bizi-prozesuak aldatzen ari badira ere, lan-munduratzeko eta familiaren etxetik joatea dira, oraindik ere, gaztarotik heldutasunera igarotzeko pausorik garrantzitsuenak. Horregatik, etxebizitza duin bat izateko eskubidea garrantzi handiko faktorea da gazteen emantzipazioa bideratzeko politika publikoen diseinuan.

<b>Etxebizitza datuak Laudion 2011</b>	
	<b>%</b>
Hutsik dauden familia-etxebizitzak	7,85
50 urtetik gorako antzintasuna daukaten familia-etxebizitzak	12,27
Azken 5 urteetan etxebizitza berriak egiteko baimena	21,55
Azken 5 urteetan amaitu diren etxebizitza babestuak (EAO)	23,61
Etxebiden dauden etxebizitza-eskabideen kopurua (% biztanle)	39,73
Etxebidek azken bost urteetan esleitu dituen etxebizitza babestuak (EAO) (% biztanle)	10,72
Etxebidek azken hiru urteetan esleitu dituen etxebizitza babestuak	23,73

Iturria: Udalmap eta EUSTAT (2015)

Etxebizitzaren datuei dagokienez, etxebizitzaren % 7,85 hutsik egon arren, azken 5 urteetan eraikitzeko baimenak % 21,55 izatera igaro dira. Etxebiden egindako eskabideen eta emandako etxebizitzaren artean alde nabarmena dago, 2011an Laudion etxebizitza eskaera kopurua % 39,73ekoa izan zen eta azken 5 urteetan esleitutako etxe-babestuak % 10,72 izan dira. Halaber, azken 5 urteetan amaitu diren etxebizitza babestuen ehunekoa % 23,61era iritsi da.



### 2.3.1. Herritarren pertzepzioa

Etxebizitzaren inguruko pertzepzioa oso negatiboa da. Gazte gehienek ez dute posible ikusten emantzipatzea eta, posible izatekotan, ahalegin handiegia eskatzen duela uste dute. Jasotako iritzien artean etxea ez erostearen ideia errepikatzen da behin eta berriz. Gazteek ez dute etxerik erosi nahi horrek dakartzan kargengatik (hipoteka etab.). Gainera, lan-baldintza ezegonkorrek ez dute ezertan laguntzen.

12 eta 17 urte bitarteko gazteen artean % 37ak uste du epe laburrean ezingo duela emantzipatu, % 27ak, aldiz, lortuko duela uste du, baina etxebizitza beste pertsona batzuekin batera alokatzen eta konpartitzen badu. 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean % 43ak uste du oso zaila edo ezinezkoa izango zaiola epe laburrean etxe bat eskuratzea, 25 eta 35 urte bitartekoen kasuan % 41ak uste du oso zaila edo ezinezkoa gertatuko zaiola eta adina zehaztu ez dutenen artean kopuru hori % 55era igotzen da.

Lehen esan bezala, adinak gora egin ahala eta etxetik alde egitearen nahia handitu ahala gazteak ezkorragoak dira emantzipatzeko ikuspegiak. Gazteek etxea lortzea zaila dela aipatzen dute eta bakarka ezinezkotzat jotzen dute gainera. Hori dela eta, lagunekin edo bikotekideekin elkartzea aukera bakartzat ikusten dute.

Ezintasun horren aurrean, gazte asko alokairu merkeagoen bila Laudiotik kanpora joaten dira. Laudioko alokairuak oso garestiak direla azpimarratu du zenbait gaztek eta herrian dauden etxe hutsak asko direla. Zentzu horretan Udalaren edo Eusko Jaurlaritzaren laguntza ekonomikoak oinarritzotzat jotzen dituzte etxebizitza propioa lortu ahal izateko. Halaber, etxe hutsak alokagai jartzeko eta alokairuen prezioak kontrolatzeko instituzioen lana beharrezkoa dela azpimarratu dute.



### 3. BIGARREN ARDATZA: GIZARTEA ETA BIZI-KALITATEA

#### 3.1. OSASUNA

Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, buru-ongizate, jendarte-ongizate eta ongizate fisiko betearen egoera da osasuna; ez soilik gaitzik edota gaixotasunik eza. Osasuna bere osotasunean hartzen badugu, ohiturak eta jokabideak izan beharko dira osasun-politiken zutabe nagusia. Hortaz, osasun-politiken bidez ohitura arriskutsuei aurre hartu beharko zaie eta ohitura osasungarriak sustatu beharko dira.


Osasun fisiko eta psikikoak, bestetik, eragin handia du hezkuntzaren, lanaren eta ingurunearekiko harremanen arloan gazteek izango dituzten aukeretan. Horregatik, gazteen osasun fisikoak eta psikikoak berebiziko garrantzia dute.

Gai honen barruan aztertu dira osasuna orokorrean eta drogen kontsumoa zehazki.

Diagnostikoaren lantze-fase desberdinetan osasunaren gaia planteatzerakoan, gazte gehienek iritzien muinean sexu-hezkuntza eta droga-kontsumoa agertu dira. Beste gai batzuen inguruan galdetu arren, ez da erantzunik jaso.

#### a. Droga-kontsumoa:


##### Droga-kontsumoa EAEn:



Iturria: Euskadi eta drogak (2015)

<b>Alkohol-kontsumoa EAEn</b>						
<b>Hasteko adin taldearen eta batez bestekoaren arabera (2004-2012)</b>						
		2004	2006	2008	2010	2012
Hasteko adin taldeak	15 urte edo gutxiago	38,6	36,2	31,3	33,3	34,9
	16 eta 17 urte artean	27,5	28,7	26,6	29,4	32,1
	18 urte edo gehiago	31,7	34,0	40,6	35,2	29,8
	ED/EE	2,2	1,0	1,5	2,1	3,3
Batez bestekoa	Hastapen adina	16,7	16,9	17,3	17,1	16,4

Iturria: Euskadi eta drogak (2015)



Iturria: Euskadi eta drogak (2015)



<b>Beste sustantzia batzuen kontsumoa</b>					
<b>Legez kanpoko zenbait droga kontsumitzen hasteko batez besteko adinaren bilakaera EAEn</b>					
	2004	2006	2008	2010	2012
Anfetaminak edo <i>speeda</i>	18,9	19,7	19,9	19,9	19,3
Estasia	20,6	20,7	21,8	19,9	20,5
LSDa	19,2	19,1	20,0	19,2	19,6
Kokaina	21,1	21,3	22,1	20,6	21,6
Bestelakoak	18,9	19,8	20,3	19,8	19,9

Iturria: Euskadi eta drogak (2015)

EAEn tabakoa kontsumitzen hasteko batez besteko adinak bere horretan iraun duurteetan zehar, erretzaile gehienak 16-17 urterekin hasten dira tabakoa kontsumitzen. Aipatzekoa da 15 urte aurretik erretzen hasi direnen proportzioa murriztu egin dela, 1996an % 30,9 izatetik, 2012an % 19,2 izatera pasa baita.

EAEko herritarrak 17 urterekin hasten dira, batez beste, alkohola kontsumitzen. Alkohola kontsumitzen hasteko adinak ez du ia aldaketarik izan. Biztanleriaren % 65ak 14 eta 18 urte bitartean ekin zion alkohol kontsumoari. Azken urteetan alkohol kontsumoaren joerak gora egin badu ere, 2012tik aurrera kontsumo-portaerak behera egin du berriro.

Kanabisaren kontsumoari dagokionez, oro har, kontsumo mailak bere horretan iraun du hala urteei dagokienez, nola kontsumitzaileen adinari dagokienez. Hala ere, 15 urtetik beherako gazteen kontsumoa murriztu egin da. 2004 kontsumo handieneko urtea izan bazen ere, 2012an kontsumoa % 15,7ra izatera pasa zen. 18 urteetatik aurrera lehen aldiz kontsumitzen dutenen ehunekoak behera egin du.

Legez kanpoko hainbat drogen kontsumoa adin desberdinetan hasten da. Adibidez, anfetaminak eta LSDa gazteago kontsumitzen hasten dira, kokaina, aldiz, beranduago (21 urte ingururekin). Legez kanpoko beste substantziekin bezala, urteen poderioz kontsumo tasa murriztu egin da.

Laudioko datuen arabera, drogarik kontsumituenak droga legalak dira, alkohola eta tabakoa, alegia. Orokorrean, gazteek droga desberdinak noizbait probatu dituzten arren, kontsumo horrek ez du jarraitutasunik, ohiko kontsumoaren tasa lehen aldiko kontsumoarena baino askoz baxuagoa baita.



Aipatu behar da Laudioko gazteen ketamina eta LSD edo tripien kontsumo-tasak neurrezinak direla.

Ondorio hauek atera ditugu, besteak beste: tabakoaren ohiko kontsumoa % 8,21 da emakumeen artean eta % 6,76 gizonen artean.

Ohiko alkohol-kontsumoari dagokionez, Laudioko mutilen % 2,97 kontsumitzen du eta nesken % 1,47. Laudioko marihuana kontsumoa altuagoa da mutilen artean (% 3,51) nesken artean baino (% 1,17).

### 3.1.1. Herritarren pertzepzioak

#### **Osasuna orokorrean:**

Osasunaren alorrari dagokionez kezka handia adierazi da. Gazteek Laudioko biztanleengan minbizi kasu asko daudelako sententzia dute, gaixotasun hori fabrika eta antenen ondorio zuzena direla pentsatzeraino. Bestalde, gazteek, gehien bat 25 eta 35 urte bitartekoek, anbulatorioa txikia dela eta han gaixotasunen inguruko informazio gutxi eskaintzen dela adierazi dute. Hala ere, inkestan jasotako emaitzetatik ezin da esan hori pertzepzio orokortua denik.

Sexu heziketari dagokionez, gazteen artean hezkuntza formalaren esparruan lantzen den gaia da. 12 eta 17 urte bitarteko gazteekin saio bereziak egiten dira ikastetxeetan eta, orokorrean, gaiaren inguruko informazio nahikoa daukatela uste dute. Halaber, 18 urtetik gorako gazteentzat badaude gai horien inguruko informazio esparru eta tailer zehatzak. Gaia neskekin lantzea errazagoa dela aipatu da, prestasun gehiago adierazten omen dutelako. Azkenik, Laudion sexu bulegoa izateko beharra identifikatu da. **Bulego hori** edozein gazteren zalantza edo kezka planteatzeko eta bideratzeko baliagarria izan daitekeela uste da.

Eragileen iritzia ere gazteen ildo beretik doa. Informazioa zabaltzeko, ikastetxeetan ez dauden gazteengana eta mutilengana heltzeko sexu informazio bulego batek lana asko erraztuko lukeela diote. Dauden egitasmoei eutsi beharko lieke Udalak. Bestalde, egiten diren tailer eta jardueren berri eman behar da.



### **Droga-kontsumoa:**

Laudioko gazteen artean, gazteria dezente drogatzen den pertzepzioa dago, baina ez beste herrietan baino gehiago. Orokorrean, gaur egungo jendartearen drogatzea ohikoa den iritzia daukate gazteek.

Laudioko gazteak asko drogatzen ote diren galdetuta, 12 eta 17 urte bitarteko gazteen artean % 13ak uste du gazteak ez direla drogatzen, % 37ak apur bat drogatzen direla eta % 36ak drogatzen direla uste du. Adin hauetako gazteek gehien kontsumitzen duten droga alkohola dela diote eta, horrez gain, tabakoa eta porroak ere kontsumitzen direla azpimarratzen dute.

17 eta 24 urte bitarteko gazteen artean, iritziak aldatuz doaz eta % 18ak uste du Laudioko gazteak ez direla asko drogatzen, % 35ak apur bat drogatzen direla dio eta % 31ak nahikotxo drogatzen direla. Aurrekoan bezala, gehien kontsumitzen diren drogak alkohola, tabakoa eta marihuana edo haxixa direla diote. Iritzi batzuen arabera, gazteek droga barik ez dakite aisialdiaz gozatzeko, beste batzuek asteburuetakoa aisialdi eskaintza murriztaren ordezkotzat aukera bakarrenetako bat parranda dela uste dute.

25 eta 35 urte bitarteko gazteen kasuan, % 7ak uste du Laudioko gazteria ez dela asko drogatzen, % 23ak apur bat drogatzen dela eta % 49ak Laudioko gazteak nahiko drogatzen direla. Droga kontsumitzen hasteko adina 16 eta 30 urte bitartean kokatzen dute eta drogen kontsumoa jendartearen oso hedatua dagoela uste dute. Gazte batzuek aipatu dute, nahiz eta drogatzea ohiko zerbait izan, informazio falta dagoela eta askok drogatzea “arazo” edo “pena bat” bezala definitu dute.

Eragileen iritziz, asteburuetan aukera gutxi egonda, alkohola edatea aukera erakargarria suertatzen zaie gazteei. Nahiz eta jendarteak uste duen droga kontsumoa eta delinkuentzia etorri berrien artean nabaria dela, errealitatea ez da hain esanguratsua eta jatorria eta delinkuentzia ez daude erlazionaturik. Ezinbestekoak dira gaur egun droga-menpekotasunaren inguruan aplikatzen ari diren programak eta eutsi egin beharko beharko litzaieke.




### 3.2. JENDARTE-EKINTZA

Gazteen egoera ekonomikoa eta gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna jorratzen dira atal honen barruan. Bi gai horiek elkarren artean oso desberdinak direla eman dezaketen arren, desberdintasun-egoerekin eta hainbat baliabide lortzeko aukera-desberdintasunarekin dute zerikusia.

Horrez gain, atal honen barruan, gai hauek landu ditugu: aukera-berdintasuna, immigrazioa, politika eta ekonomia. Azken bi gai horien inguruan iritzi gutxi jaso arren, horien inguruan eztabaidatzeko eta hausnartzeko tartea eman genuen.

Udalak zerbitzu hauek eskaintzen ditu: oinarrizko jendarte-zerbitzuak, adikzioen prebentiozerbitzua, berdintasun-zerbitzua, herritarren arretarako zerbitzua, Udaltzaingoa, kontsumoko udal bulegoa, helduen zentro soziokulturalak, indarkeria sexista jasaten duten emakumeentzako harrera-zerbitzua eta "Zuzen" zerbitzua.




Iturria: Laudio Udala (2015)





<b>Pertsona heldu berrien kopurua Araban (2011)</b>			
	Guztira	Atzerritar kopurua	%
Laudio	18.494	837	4,5
Aiara	2.880	52	1,8
Amurrio	10.014	658	6,6
Artziniega	1.843	120	6,5
Okondo	1.155	55	4,8
Gasteiz	239.562	23.832	9,9
Araba	319.227	28.821	9,0
EAE	2.184.606	145.256	6,6

Iturria: Ikuspegi (2015)



2011an, Laudioko 18.494 biztanleetatik 837 ziren etorri berriak. Kopuru hori Laudioko biztanleriaren % 4,5 da. EAEko datuekin alderatuta, Laudiokoa kopuru txikiagoa da: 2011n EAEaren % 6,6 zen etorri berria eta 2013an % 6,8 baitzen.



<b>Jarduera ekonomikoa duten Laudioko establezimenduak (2012)</b>	
Establezimenduen dentsitatea	61,8
Lehen sektoreko establezimenduak (%)	0,8
Industriako establezimenduak (%)	15,0
Eraikuntzako establezimenduak (%)	12,3
Zerbitzuetako establezimenduak (%)	71,9
Autonomoen tasa	12,9
Ekintzailetasun ekonomikoa (%)	73,8
Ekintzailetasun industrialia (%)	88,9
Industriaren teknologia maila handia eta ertain-handia (%)	10,3

Iturria: Atlas.net (2015)

Datu ekonomikoak aztertuta, Laudioko establezimendu gehienak zerbitzu sektorean aritzen direla ikus dezakegu, establezimendu horiek % 71.9 dira. Lehenengo sektoreko establezimenduak, aldiz, %0,8.

Ekintzailetasun ekonomikoa % 73,8 da eta ekintzailetasun industrialia % 88,9. Datu horiek argi erakusten dute Laudioko jarduera ekonomiko nagusia industria dela.

### **3.2.1. Herritarren pertzepzioak:**

#### **a. Genero berdintasuna:**

Nahiz eta emakume eta gizonen arteko desberdintasunak nabariak izan, Laudion, emakume eta gizonen arteko berdintasunaren bidean gaudelako iritzi orokorra dago. Batek baino gehiagok aipatu du gaur egun ez dagoela aukera berdintasunik, ez Laudion ez inon. 12 eta 17 urte bitarteko gazteen artean, % 44ak uste du berdintasuna dagoela, 18 eta 27 urte bitarteko gazteen artean % 63ak berdintasunik ez dagoela edo erdipurdikoa dela dio eta 25 eta 35 bitarteko gazteen artean ezin da iritzi orokorrik atera iritziak nahiko kontrajarriak direlako. Emakume batzuk azpimarratu dute eraso sexista gisa definitzen ez diren erasoak daudela.



Eragileen iritziz, kirol arloan emakume eta gizonen erabilera antzekoa da parte hartzeari dagokionez, baina, ikastaroei erreparatuta, emakumeen eta gizonen parte-hartzea aldatzen da. Etorri berrien familien artean ere kirola asko estimatzen da, baina emakume musulmanak kiroldegira hurbiltzea kostatzen da.

#### **b. Sexu-nortasuna:**

Oraindik aurreiritzi asko dagoela uste da. Aurreiritzi horiek jendartearen ondorio direlako sentrazioa dago. Genero berdintasunean bezala, nahiz eta aurreiritziak egon, aurrerapausoak ematen ari direla uste da. Orokorrean gazte gehienek erdipurdikotzat edo kili-kolokotzat jotzen dute egoera. *Identitate sexualarekiko aurreiritziak daudela uste duzu?* galderari 12 eta 17 urte bitarteko gazteen artean % 39ak, 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean % 35ak, 25 eta 35 urte bitarteko gazteen artean % 44ak eta adina zehaztu ez dutenen artean % 57ak erantzun hori eman du.

Inkestetan sexu-nortasunari buruzko galdera bat txertatzea erabaki zuten talde eragileko gazteek. Sexu-nortasuna edo genero-nortasuna gizabanakoak bizi duen barne bizipen indibiduala da eta jaiotzetiko sexuarekin bat etor daiteke ala ez. Sexu-orientazioa besteenganako erakarpen emozional, erromantiko, sexual edo afektuzkoa da.

#### **c. Immigrazioa:**

Laudion dauden iritsi berri gehienak Saharakoak direla uste da. Gazte askok Udalak eta instituzioek heldu berrientzako diru-laguntza bereziak dituztela pentsatzen du. Pertsona horiek uste dute bertakoek baino aukera gehiago dituztela. Hala ere, badira iritsi berriek bertokoak baino egoera ekonomiko larriagoa eta aukera gutxiago dituztela pentsatzen duten gazteak. Egindako inkestetatik ezin ditugu ehunekoen ondorio argiak atera, iritzia nahiko kontrajarriak direlako.

Eragileen iritziz, gazte etorri berriak, hemengo gazteek nahi dituzten gauza berdinak nahi dituzte, baina ez dituzte aukera berdinak eta ekonomiak asko baldintzatzen du euren errealitatea. Migratzea ez da aukera pertsonala, familian hartutako erabaki bat da, familiaren egoera hobetzeko asmoz egindakoa. Familia hauetako gazteak bi kulturen artean daude, hemengo kulturen hezi dira, baina familian beste bat daukate; horregatik gurasoak normalean asimilazioaren beldur dira. Errealitate hau nesken kasuan areagotzen da.



Nahiz eta jendartean uste den droga kontsumoa eta delinkuentzia etorri berrien artean nabaria dela, errealitatea ez da hain esanguratsua. Audioarren artean okerren baloratua dagoen kolektiboa sahararrena da. Ikasle heldu berri gehienak D ereduan ikasten dute.

#### **d. Egoera politiko eta ekonomikoa**

Laudion maila ekonomikoak oinarrizko eskubideetan eragiten ote duen galdetuta, gazteek adinaren arabera iritzi ezberdinak dituzte. 12 eta 17 urte bitarteko gazteen artean, iritzi oso desberdinak daude: guztiz ados, guztiz kontra... 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean gauza bera gertatzen da, iritziak nahiko kontrajarriak dira. 25 eta 35 urte bitarteko gazteen artean iritzia bateratzen doa eta % 61ak uste du eragin ertaina duela.

Azken kopuru hori metodologia desberdinen bidez batutako iritziek azpimarratzen dute. Jasotako iritzi gehien artean, maila ekonomikoa eskubideei dagokienez traba bat delako ustea gailentzen da. Diru barik etxebizitza eta beste baliabide batzuk eskuratzea ezinezkotzat jotzen dute.

Gazte batzuek aipatu dute egoera ekonomikoak aisialdirako aukerak murrizten dituela.

Eragileen arabera eguneko zentroko hezitzaileek aipatu dutenez, zerbitzu hauek erabiltzen dituzten gazteek, oro har, ikasketetan eta harremanetan arazoak dituzte. Gazteak konfiantza arazo nabaria dute eta nahiko desmotibatuta daude.

### **3.3. KULTURA**

Bata besteari lotutako hainbat fasetan banatzen dira gazteen kultura-jarduerak: prestakuntza, sorkuntza, ekoizpena, hedapena, sustapena, banaketa eta kontsumoa. Jarduera-etapa bakoitzak esku-hartze desberdinen beharra eta hainbat gabezia izan ditzakete.

Kultura-jarduerak berealdiko garrantzia dute gazteen nortasun subjektiboak egituratzeko prozesuan. Hori dela eta, herritar gazte guztiak kulturaren murgilaraztea izango da gazte-politiken egiteko nagusia. Gazte politiken edukiek, bestalde, hezkuntzako helburuekin eta jendartea bateratzeko helburuekin bat etorri beharko dute. Kultur xedeak ondorengoak izango dira: gazteei kultura ezagutzeko bideak ematea, gazteengan kulturaren zentzuzko kontsumoa sustatzea eta artearen nahiz sormenaren bidez beren burua adierazteko aukera ematea gazteei.




Atal honetan hurrengo gaiak landu ditugu: euskara, kultura eta parte-hartzea.

### Euskararen ezagutzaren datuak Laudion 2001-2006

	2001	2006
<b>Euskaldunak</b>	4.032	4.768
<b>Ia euskaldunak</b>	5.087	4.519
<b>Erdaldunak</b>	9.424	8.679
<b>Guztira</b>	18.543	17.966


Iturria: Laudio Udala (2015)



Laudioko biztanleria erdalduna da oro har. Biztanle gehienentzat (% 48), gutxi gora behera, 8.679 pertsonarentzat gaztelera da ama hizkuntza; euskaldunen kopurua askoz txikiagoa da (% 27) eta ia euskaldunen kopurua %25 da.

2011n Udalak bildutako datuei erreparatuta, adinaren arabera euskararen erabileraren datuak aldatu egiten dira. Haurren artean % 84,60, gazteen artean % 94,70 eta helduen artean % 90,50 erdaraz hitz egiten du. Horrek esan nahi du, nahiz eta hizkuntza menperatu, ez dutela erabiltzen.





Iturria: Laudio Udala (2015)

Udaletxeak eskaintzen dituen aukerez gain, herritarrek sortutako elkarteak ere aurki ditzakegu. Askotariko elkarte motak daude: jendarte-elkarteak, nagusien elkarteak, kirol taldeak, kultur elkarteak... Beheko zerrendan agertzen dira gazteen parte-hartzerik handiena duten elkarteak.

#### **Herriko elkarten zerrenda:**

Kultur taldeak:

- Kirikiño taldea.
- Ttuntturro, Laudioko zanpantzar taldea.
- Uhinak kultur elkarte.
- Aiara eskualdeko bertso eskola (Aiebe).

Musika taldeak:

- Aiarako trikitixa elkarte.
- Fi ta fik euskal soinu-tresnen kultur elkarte.
- Untzuetan dantza taldea.
- Ixarkundia dantza taldea.

Jai taldeak:

- Latorroko jai batzordea.
- Aretako jai batzordea.



- Zoroak kuadrilla.
- Denon Txosnak elkartea.
- Jaiak Koordinakundea.

#### Kirol taldeak

- Araba Karate Club.
- Aiara Hockey Taldea.
- Club Atletismo Laudio.
- C.D. Futbol Laudio Sant Rokezar.
- Club Taekwondo Laudio.
- Ganbegi 6-2 Hockey Taldea.
- Grupo Alpino Goikogane.
- Laudio Baloncesto Club.

#### Gazteen elkarteak:

- Laudioko Gazte Asanblada.

### **3.3.1. Herritarren pertzepzioak:**

Laudioko gazteek, gehienek, herriko eskaintza murrizta dela uste dute. Antolatzen diren ekintza gehienak ume edo helduentzat direla, gazteen interesak eta gustuak alde batera utziz.

Behin eta berriro kultura garatzeko espazioen beharra dagoela aipatzen da: zinema areto egoki bat eta nobedadeak dituen, antzoki bat kontzertuak egin ahal izateko... Egindako elkarrizketa, eztabaida-tailer eta inkesten bidez, gazte askok Laudiotik kanpora eskaintza kulturalaren bila ateratzen direla ikusi dugu.

#### **Euskara:**

Elkarrizketatu ditugun guztiek aipatu dute hizkuntza nagusia Laudion gaztelania dela. Askok aipatzen du euskara lehen baino gehiago entzuten dela, baina jarraitzen duela gutxiengo baten kontua izaten. Gaur egun, Laudion zaila da bizitza euskaraz egin ahal izatea (dendetan erostea...). Hala ere, pertsona gehienek aipatzen dute gero eta gehiago entzuten dela euskara kalean.



Gazteenek, 12 eta 17 urte bitartekoek, gaztelaniaz erlazionatzen direla diote eta euskara esparru formalera, hau da ikastetxera, mugatzen den hizkuntza dela diote. Nahiz eta jakin eta menperatu, euren arteko komunikazioan ez dute erabiltzen. Hau argi ikusten da egindako inkestetan, % 57 euskararen erabilera txarra edo erdipurdi bezala baloratu baitu.

18 eta 24 urteko gazteen kasuan, % 51ak oso txartzat edo txartzat definitzen du euskararen erabilera Laudion, % 24ak erdipurdikoa dela uste du, % 13ak ondo dagoela eta % 12ak oso ondo dagoela uste du. Datu horiekin zera esan dezakegu: gazteek nahiko negatiboki baloratzen dutela euskararen erabilera Laudion.

25 eta 35 urte bitarteko gazteen artean, % 59ak txartzat edo erdipurdikotzat jotzen du euskararen erabilera. Adin tarte horretako gazteek uste dute herrian ez dagoela euskaraz hitz egiteko ohiturarik, baina positibotzat jotzen dute urtetik urtera erabilera handitu izana.

Eragileen arabera, gazteen artean ez da euskara erabiltzen eta gazte iritsi berrien kasuan, euskara beste karga bat edo lan bat gehiago dela uste dute.

### **Parte-hartzea eta elkartegintza:**

Parte-hartzearen eta elkartegintzaren inguruan gazte batzuek aipatu dute lokalak parte hartzeko oztopo bat direla. Gaur egun, Laudioko gazte askok euren lokaletako espazio pribatuetan hartzen du bakarrik parte eta elkarte eta eragileek antolatzen dituzten ekimen eta ekintzetara ez dira hurbiltzen.

Talde eragileetan parte hartzen duten gazte gehienek aipatzen dute eskaintza zabala osatzen dela elkarteetatik, baina ez dela ondo ezagutzera ematen. Batzuek aipatu dute elkarteetatik egiten den eskaintza Udaletik egiten dena baino zabalagoa dela eta askotan Udalak eragileei oztopoak jartzen dizkiela euren eskaintza aurrera eramateko. Eragileekin izandako elkarrizketetatik ondoriozta dezakegu faktore hori kezka handia dela eurentzat; “Iana aurrera eramateko burokrasia zailagainditu behar dugu”, “beti daude Udaletxearen trabak”... Antolatutako gazte hauek aipatu dute gazte mugimendua ez dela bereziki aktiboa eta elkarte antolatu gehienetan “betiko” jendea dagoela.

Gazteen artean eragile edo elkarteren batean parte hartzen ote duten galdetuta, 12 eta 17 urte bitarteko gazteen % 65ak ez du parte hartzen eta 18 eta 24 urte bitartekoen artean, % 45ak ez, % 35ak erdizka eta % 30ak parte hartzen du. 25 eta 35 urte bitarteko gazteen





datuak nahiko orekatuta daude: % 31ak ez du parte hartzen, % 28ak erdizka parte hartzen du eta % 41ak parte hartzen du eragileren batean.

Jaso diren iritzien artean, aipatzekoa da gazteak elkarteetan aktiboki parte ez hartu arren, Jai Koordinakundearen bitartez eta auzoetako jaien bitartez herriko gazte pila bat inplikatzeko dela.

Eragileen arabera, gazteek martxan jartzen diren dinamiketan parte hartzen dute, ez guztiek maila berean, baina auzoetako jaien prestaketan gazteen presentzia oso nabarmena da. Udalaren kultur eskaintza, aldiz, oso eskasa da, ez dago ia aurrekonturik, ezta baliabiderik ere. Gainera kultur ekipamenduen egoera nahiko eskasa da eta antzoki baten beharra dago herrian. Bestalde, herriak identitate eta nortasun propioa galdu du eta jaiak hori berreskuratzeko era bat izan daitezke.



### 3.4. AISIALDIA

Kultura-jarduerekin gertatu bezalaxe, gazteek aisialdian dituzten jarduerak eragin handia izango dute haien identitatea taxutzeko ibilbidean. Pertsonen nortasuna eratzeko prozesuan, lanaren munduak eragin itzela zuela pentsatzen zen aurreko hamarkadetan. Azken urteotan, ordea, uste da aisialdiak eta beste era bateko faktoreek dutela pertsonen nortasunaren eta bizimoduan eraginik handiena. Nabarmendu beharra dago azken urteotan garrantzi handiko bilakaera izan duela aisialdiaz gozatzeko moduak. Gaur egun, lehen baino denbora libre gehiago dugu; lehen baino pertsona gehiagok gozaten du aisialdiaz eta aisialdiko jardueren eskaintza lehen baino handiagoa da orain.

Aisialdiaz gozatzeko dinamika asko, bestetik, kontsumoan oinarritzen dira. Beste alderdi askotan bezala, teknologia berrien erabilera ugaldtu egin da aisialdian ere. Beste adin tarteetako pertsonengan baino are eragin handiagoa dute gazteengan bi faktore horiek.

Atal honen barruan teknologia berriak, aisialdia eta harremanak landu ditugu.

#### **Laudioko datuak:**

Aisialdiari dagokionez, gazteentzako ekintza eta azpiegitura ugari dago herrian. Udaletik ikastaro eta tailer desberdinak antolatzen dira gazteentzat. Halaber, Orbeko Etxea edo Gazte Asanblada bezalako elkarteetatik ere hainbat ekintza antolatzen dira. Azpiegiturak aipatu behar baditugu, badaude gazteei bereziki bideratutakoak. Nerabeei zuzenduta, Ugarte auzoan, Gaztelekua dago (udal zerbitzua). Gaztetxea herriko parkean dago. Orain 10 urte martxan dagoen skate-parkea ere asko erabiltzen dute gazteek.

Gazteen lonjen fenomeno ezin dugu ahaztu Laudion ere. Aisialdirako ohiko eremu pribatu dira gazte lonja eta lokalak. Laudioko gazte gehienek lokala dute alokatuta lagun taldearekin. Herriko Udaltzaingoaren arabera, 50 gazte lokal inguru daude eta gehienak identifikatuta dituzte.

#### **Kirola:**

Kirol-azpiegitura publikoak:

- Lamuza-Granja kiroldegia.



- Gardea kiroldegia.
- Ellakuri kiroldegia.
- San Martin futbol zelaia.
- Areta pilotalekua.
- Lateorro pilotalekua.
- Lamuza pilotalekua.
- Lamuza parkeko zelaia.
- Ugarteko zelaia.
- Ruper Urkijo bolatokia.
- Aretako bolatokia.
- San Rokeko karrejoa.
- Areta karrejoa.

Kirol-azpiegitura pribatuak:

- Kiden gimnasioa.
- Araba fitness.
- Laudio Wellnes S.L.
- Gym Mio Max.

**Kirol-ekintzen instalazioen erabilera Laudioko gazte biztanleriaren artean (2012)**

<b>Urteak</b>	<b>Biztanleria guztira</b>	<b>Abonatuen guztira</b>	<b>Abonaturik dagoen biztanleria</b>
<b>5-13</b>	1.341	686	%51,1
<b>14-17</b>	560	271	%48,3
<b>18-gehiago</b>	10.476	2.842	%27,1

Iturria: Laudio Udala (2015)

Laudion kirolerako eta aisialdirako hainbat instalazio dago. Kirol instalazioei dagokienez, adin guztietan mutirik dira gehien erabiltzen dituztenak.

Adinaren arabera aztertzen baditugu datuak, esan dezakegu 14 eta 17 urte bitarteko gazteak direla instalazioak gehien erabiltzen dituztenak.



<b>Kirol ekintzetan eta instalazioetan parte hartzen duten gazteen kopurua. Abonatuak (% 2012)</b>		
<b>Adina</b>	<b>Mutilak</b>	<b>Neskak</b>
<b>5-13 urte</b>	9,32	7,59
<b>14-17 urte</b>	2,93	2,86
<b>18-59 urte</b>	38,38	28,51

Iturria: Laudio Udala (2015)

### **3.4.1. Laudioko herritarren pertzepzioak:**

Laudioko aisialdi eskaintzari buruzko iritzia gehienak nahiko kritikoak izan dira. Gazteek uste dute Laudio bezalako herri batean eskaintzak zabalagoa izan beharko lukeela eta gaur egun eskaintza murrizta izateaz gain, eskaintza zabaltzeko espazio egokiak falta direla; askok aipatzen dute. Gainera, dauden espazioak zaharkituta ei daude.

Laudioko aisialdi-eskaintza gustatzen ote zaien galdetuta, 12 eta 18 urte bitarteko gazteen artean % 56ak ezetz erantzun du eta % 33ak erdipurdi edo kili-kolo dagoela azpimarratu du. Soilik % 12ak erantzun du eskaintza ondo dagoela. Adin tarte honetan, astean zehar ikastordua eta eskolaz kanpoko jarduerak batuta, aisialdirako unerik ez dutela esan dute. Aisialdia asteburuetan dute, askok lagunekin dituzten gazte lokaletan. Hala ere, gazteak biltzeko espazio itxi eta publiko baten beharra ikusten dute.

18 eta 24 urte bitarteko gazteen % 41ak eskaintza txarra dela erantzun du, % 34ak kili-kolo baloratu du Udaletik egiten den eskaintza eta % 3ak positiboki baloratzen du. Aurreko adin tarte bezala, Udaletik aisialdi eskaintzarik ez dagoela aipatzen da behin eta berriro. Bestalde, aisialdia garatzeko espazio falta azpimarratzen da: entsegu-gelak, ekitaldiak egiteko tokiak, liburutegia berritzea... Gazte batzuek aisialdi ereduak parrandara soilik mugatzen direla aipatu dute.

25 eta 35 urte bitarteko gazteen artean eskaintza horrela baloratzen da: % 48 txarra edo oso txarra, % 39 erdipurdikoa eta % 3 ondo. Hirugarren adin tarte honetan ere, Udalaren aisialdi eskaintza negatiboki baloratzen da eta, beste adin tarteetan bezala, eskaera eta hutsune berdinak aipatzen dira; espazio publikoen falta (entsegu-lokalak, antzokiak...), eskaintza



“eskasa”... Aspalditik, asteburuetarako planak eta ekintzak antolatzean, Aiaraldean Laudio aisialdirako erreferentea izan zela aipatu dute. Gaur egun, ordea, gazteak eskaintza anitzagoen bila beste herrietara doaz.

Eragileek diotenez, gaur egun Laudion gazteek oso aukera gutxi edo bat ere ez dituzte aisialdirako. Gaztelekuko zerbitzua ondo dago eta begiraleekin harremana egokia da, baina eskaintza ez da motibagarria gazteentzat eta kokapena ez da egokia, ez dago herrigunetik gertu.

Aisialdirako ekintzen, kirol ekintzen eta espazioen beharra dago herrian. Herrian egoteko espazio bat behar dute gazteek. Euren interesetara egokitutako ekintza hezitzaileak antolatzea proposatzen dute. Falta den espazio horretan entsegu gelak, margolanak egiteko, elektrizitatea lantzeko...espazioa sortu beharko litzateke.

Gazteek honetan parte hartzeko oinarritzkoa da komunikazio bideak lantzea eta gazteak berak izatea informazio hori zabaltzen dutenak, hau da, gazteek gazteei komunikatzea.

Gazte lokalei buruz galdetzean, eragileek arazoak sortzen dituzten lokalak badaudela aipatzen dute; zarata da arrazoi nagusia. Normalean auzokide eta gazteen artean konpontzen dira arazoak, baina behin eta berriz errepikatzen denean Udalera jotzen dute auzokideek eta Udaltzaingoa eta Gazteria Arloak era koordinatuan hartzen dute esku.

### **Kirola:**

Diagnostiko honetan okerren baloratzen diren alderdiak kirol eskaintza eta azpiegiturak dira. Adin guztietako gazteek aipatzen dute kirol azpiegiturak “eskasak”, “zaharkituak”, “zikinak”, “txikiak” eta “gutxi” direla. Laudio bezalako herri batean eskaintza oso mugatua dagoela aipatzen da, gehiena futbolera bideratua dagoela eta eskaintza publikoa izan arren, ordaindu beharrekoa dela.

12 eta 17 urte bitarteko gazteen % 18ak gaizki edo oso gaizki baloratzen du, % 55ak erdipurdi edo kili-kolo eta % 27ak ondo. Iritziak oso kritikoak dira: azpiegiturak zaharkituak daudela eta eskaintza nagusia futbolera bideratzen dela azpimarratzen dute. Gainera, nabarmendu dute 16 urte bete arte gimnasioa ezin dela erabili.

18 eta 24 urte bitarteko gazteen kasuan, % 41ak gaizki edo oso gaizki baloratzen ditu azpiegiturak, % 29ak erdipurdi edo kili-kolo eta % 17ak ondo baloratzen ditu. Iritzien artean,



lehenago aipatutako kritikak topatzen ditugu (kiroldegi txikia eta zaharra...). Halaber, dena futbolera bideratua dagoela diote, pilotalekuak soilik eguraldi onarekin erabili daitezkeela estalita ez daudelako eta atletismo pista arauzkoa ez izateaz gain, zikin egoten dela. Bestalde, aipatu dute herrian boulder edo rokodromo baten beharra dagoela.

25 eta 35 urte bitarteko gazteen artean, iritziaurreko adinetan baino kritikoagoak izan dira. % 56ak uste du azpiegitura oso txarrak edo txarrak direla, % 29ak uste du kili-kolo daudela eta soilik % 4ak uste du onak edo egokiak direla. Adin honetako gazteek azpiegituren egoera eskasa, masifikatua eta zaharra aipatzeaz gain, oso garestiak direla aipatu dute. Askoren ustez, instalazioak ez dira nahikoa eta herrian gimnasio publiko baten beharra dago. Horrez gain, ekintza berriak planteatu beharko liritekeela uste dute.

Eragileen iritzia kontrajarria da arlo honetan, batzuk diote gazteek kirola ez dutela praktikatzeko eta beste batzuk gazteak kirolariak direla. Hala ere, orokorrean, gazteei espezifikoki zuzendutako ikastaroak antolatu beharko liritekeela diote guztiek, gehienbat 13 eta 16 urte bitarteko neskekentzat. Bestalde, Udalak kirol taldeei gehiago lagundu beharko lieke.

### **Harremanak:**

Laudioko gazteen arteko harremanak nahiko ondo baloratu dira. Lau dioko gazteek orokorrean elkar ezagutzen dutela uste dute, gehienbat adin bereko gazteak direnean. Batzuek gazteen artean elkar ezagutzen dutela aipatu arren, elkarren artean harremanak izatea beste kontu bat dela diote. Nolanahi ere, iritzi orokorra nahiko positiboa da.

12 eta 17 urte bitarteko gazteen % 54ak ondo edo oso ondo baloratzen ditu gazteen harremanak eta soilik % 8ak baloratzen du gaizki. 18 eta 24 urte bitarteko gazteen kasuan, iritzia banatuagoa dago: % 19ak gaizki baloratzen du, % 23ak erdipurdi eta % 29ak ondo edo oso ondo baloratzen du. 25 eta 35 urte bitarteko gazteen artean pertzepzioa nahiko positiboa da; nahiko ondo % 32ak baloratzen du eta % 37ak ondo edo oso ondo.

Gazteen iritzia nahiko antzekoak dira, gehienek aipatzen dute asteburuetan erlazionatzen direla lagunekin. Gazteenek (12-17), besteek ez bezala, lagunekin egoteko espazioa lokala dela diote; nagusienek tabernetan erlazionatzearen pertzepzioa dute. Orokorrean, lagun taldeak mistoak dira, txikitatik ikastetxean eta Laudion sortuak.



### **Teknologia berriak:**

Gazte gehienek aipatzen dute gaur egun teknologia berrien bidez komunikatzen direla (WhatsApp, Facebook, Tuenti...). Hezitzaileek aipatzen dute 12 eta 17 urte bitarteko gazteen arteko harremanetan sare sozialen eragina nabaria dela. Hezitzaileek ikusten dute honetara ohipu direla gazteak eta gaitasunak galdu dituztela zuzeneko harremanetarako.

12 eta 17 urte bitarteko gazteen % 67ak sare sozialak erabiltzen dituela adierazi du, % 20ak apur bat erabiltzen dituela eta % 7ak dio ez dituela sare sozialak erabiltzen. 18 eta 24 urte bitarteko gazteen kasuan, erabileraren ehunekoak orekatuta daude: % 24ak erlazionatzeko sare sozialak erabiltzen dituela dio, % 35ak apur bat erabiltzen dituela eta % 22ak ez dituela erabiltzen. 25 eta 35 urte bitarteko gazteen % 23ak sare sozialak erabiltzen dituela dio, % 36ak apur bat erabiltzen dituela eta % 20ak sare sozialak erlazionatzeko ez dituela erabiltzen.



### 3.5. KONTSUMOA

Kontsumoari dagokionez, Eusko Jaurlaritzaren III. gazte-planean honela definitzen da gaia.

Arduraz kontsumitzen irakatsi behar diete administrazio publikoek gazteei. Hau da, gazteek jakin behar dute beharrak asetzetik harago doala kontsumoa. Horren arabera, benetako beharretara egokituko dute gazteek kontsumitzeko ohitura eta, horrez gain, jendarteberdintasuna nahiz ingurumena zainduko duten aukeren alde egingo dute merkatuan.

- EAEko gazteen erosteko ahalmenak eta, ondorioz, kontsumitzeko gaitasunak behera egin du azken urteotan.
- Produktuaren kalitateari eta prezioari erreparatzen dio erosteko orduan 15 eta 29 urte bitarteko EAEko gazteen %90ak. Garrantzi handiagoa ematen diote markari gizonezkoek eta gazteetan gazteenek (hots, 15 eta 19 urte bitartekoek).
- Gazteak zenbat eta zaharrago, orduan eta gehiago kezkatzen dira gizarteari eta ingurumenari buruzko auziez produktuak erosterakoan.





### 3.6. MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

Mugikortasuna aztergai izango dugu atal honetan. Mugikortasun kontzeptuaren barruan sartzen dira, ikastera edo lanera joateko nahiz aisialdi-jardueretarako gazteek egiten dituzten joan-etorriak. Joan-etorrietan emandako istripuak ere aztertuko ditugu.

Herritarren pertzepzioetan ikus dezakegu segurtasun arloko gaiak ere landu dituztela gazteek eta herriko gune ilunen inguruan ere eman dute iritzia.

#### Laudioko datuak:

- Autobusak: BizkaiBus, La Unión - La Burundesa, Interurbanos de Álava.
- Trenak: RENFE. Aldirikoa eta Ibilbide luzeak.
  - o Bilbo-Castejón de Ebro ibilbidea egiten duen trena.
  - o Laudion bi geraleku eta geltoki bat topatu daitezke.
  - o Zirkulazioa mistoa da: pertsonak eta merkantzia.
  - o Linea horren bidez, Laudio eta Bilbo lotzen dira 28 minuturo, baita Laudio eta eskualde guztia ere, bereziki, Amurrio eta Urduña.
- Taxi-zerbitzuak.
- Errepide-sarea:
  - Oinarrizko errepide-sarea:
    - o A-625 Laudio Urduña eta Amurriorekin lotzen duena.
  - Eskualdeko errepide sarea:
    - o A-2522/BI-2522
    - o A-624 (Ziorraga-Amurrio-Balmaseda)
    - o A-625 Arakaldon.
  - Oinezko eta txirrindularien sarea:
    - o Laudion txirrindularientzako eta oinezkoentzako bideak aurki ditzakegu.

<b>Herritarren segurtasuna (2012)</b>			
	<b>Laudio</b>	<b>Aiara</b>	<b>Araba</b>
<b>Ibilgailuek harrapatutako oinezkoak erregistraturiko istripuetan (10.000 biztanleko)</b>	2,70	2,32	4,76
<b>Erregistratutako trafiko istripuak (%biztanle)</b>	4,21	6,73	6,68

Iturria: EUSTAT (2015)



### 3.6.1. Herritarren pertzepzioak:

Gazteek Laudioko komunikabideak orokorrean egokiak direla uste dute. Gazteen ustez, erdigune eta auzoen arteko komunikabideak nahiko egokiak dira. Latorro da okarren komunikatuta dagoen auzoa. Auzo honetako gazteek okerrago baloratu dituzte bideak. Auzoen aipameneren artean Aretako errepidearen egoera txarra nabarmentzen da.

Datuen arabera, 12 eta 17 urte bitarteko gazteen artean, % 40aren arabera, komunikabideak egokiak edo oso egokiak dira, % 38arentzat gabeziak dituzte eta % 25arentzat komunikabideak txarrak dira. 18 eta 24 urte bitarteko gazteen artean iritziak nahiko kontrajarriak dira: % 24ak uste du txarrak direla, % 41ak erdipurdi daudela eta % 21ak ondo edo oso ondo daudela. 25 eta 35 urte bitarteko gazteen kasuan, % 27ak gaizki daudela uste du, % 41ak kili-kolo eta % 15ak egokiak direla. Erdigunearen eta auzoen arteko komunikabideak hobetzeko, gazteek bidegorriak eta gauetan bueltatzeko ibilbide zainduak proposatzen dituzte.

Eragileen arabera, ondoko herriekin komunikatzen den garraio publiko gehiago behar dira.

Nahiz eta herri segurua izan, kontrol eta polizia gehiegi dagoen pertzepzioa daukate. Emakume batzuek aipatu dute gunerik ilun nahikotxo daudela herrian, gehienbat erdigunetik aldentzerakoan; bestalde, erdigunetik auzoetara joateko bideak gau partean arriskutsuak izan daitezkeela edo behintzat zenbait emakumek segurtasun eza sentitzen dutela azpimarratu dute. Arazo horri aurre egiteko, herritarren sareak osatzea proposatu dute, etxera elkarrekin joateko, kotxea konpartitzeko etab.

Orokorrean, Laudio herri seguru gisa definitzen dute gazteek. 12 eta 17 urte bitarteko gazteen % 44ak nahiko segurua dela dio eta % 31ak segurua dela. 18 eta 24 urte bitarteko gazteen kasuan, datuak nahiko orekatuak daude segurua eta ez seguruaren artean eta 25 eta 35 urte bitarteko gazteen artean % 35ak nahiko segurua dela dio eta % 34ak segurua.

Eztabaida tailerretan gazteek aipatu dute herria ez dagoela prestatuta zailtasun fisikoak dituzten pertsonentzat, zaila dela herrietik mugitzea eta are gehiago erdigunetik auzoetara joatea.



#### 4. HIRUGARREN ARDATZA: UDALA

##### a. Udalak bideratzen dituen ekintzak

Atal honetan udal teknikariei, eragileei eta gazteei Udalaren eta gazte-planaren inguruan galdetu diegunean jaso duguna batu dugu.

Udal Arloak	Gaur egun egiten diren ekintzak gazteei zuzenduta
<b>EUSKARA ARLOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Mendi irteerak.</li> <li>- Umeentzako zinema.</li> <li>- Eskolekin barnetegira.</li> </ul>
<b>HEZKUNTZA, BERDINTASUN ETA GAZTERIA ARLOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Gaztelekuko zerbitzua.</li> <li>- Orbeko Etxea.</li> <li>- Laudio Top Zinema.</li> <li>- Diru-laguntzak gazte elkarteentzat.</li> <li>- Gazte-plana.</li> <li>- Tailerrak (ikus-entzunezkoak, jabekuntza eskola, autodefentsa, sexualitate tailerrak, sukaldaritza tailerrak...).</li> <li>- Trebakuntza saioak (jendarte abileziak, jostintza,...).</li> <li>- Bakerako hezkuntza programa eskoletan.</li> <li>- Genero biolentziaren kontrako kanpainak.</li> <li>- Hezkuntza afektibo-sexuala.</li> <li>- Preserbatiboaren erabilera sustatzeko kanpainak.</li> <li>- Bikote gazteetan genero biolentziaren prebentzioa.</li> <li>- Kanpainak: martxoak 8, maiatzak 17 eta azaroak 25.</li> <li>- ZUZEN programa.</li> <li>- Multiabentura programa.</li> <li>- Graffiti eta muralismo programa.</li> <li>- Musika maratoia.</li> </ul>
<b>GIZARTE ONGIZATE, OSASUN ETA LANKIDETZA ARLOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Eskoletan gazteentzat zerbitzu edo programa zehatzak daude.</li> <li>- Adikzioen prebentzioa: prebentzio bulegotik programa zehatzak eskaintzen dira.</li> <li>- Kontsumo arazoak prebenitzeko hainbat ekimen daude.</li> </ul>



<b>KULTURA, KIROL ETA JAI ARLOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Adin tarte ezberdinekin egiten da lan: Kultura Etxeko tailerrak.</li> <li>- Kultura etxeko programazioaren portzentaje txiki bat gazteen ekintzetara zuzentzen da (%5a gutxi gorabehera).</li> </ul>
<b>HIRIGINTZA ETA INGURUMEN ARLOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Hirigintza Arloaren helburua ez da gazteekin lan egitea. Behar handiagoak dituzten pertsoneri (haurrak, adinekoak, oinezkoak..) zuzendutako programak izan ohi dira, barnean gazteak har ditzaketenak, baina modu ez espezifikoa.</li> <li>- Gazte-hornidura batzuen kasuan, euren iritzia kontuan hartu beharko litzateke.</li> <li>- Gatazkak eta kexak daudenean: Hirigintza Arloak botiloia eta lonjen inguruko arautegia betearazten du.</li> <li>- Tokiko 21 Agenda.</li> </ul>
<b>GARAPEN AGENTZIA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Lana, trebakuntza, merkataritza-sustapena, ekintzaileentzako diru-laguntzen programa, enpresa-haztegia eta nekazaritza-garapena.</li> <li>- Baratzeak.</li> <li>- Ikastaroak.</li> </ul>
<b>UDALTZAINGOA</b>	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Koordinazioa Gazteria-zerbitzuarekin.</li> <li>- Udaltzaingoak gazteekin daukan harremana kontrola eta bitartekaritza da gehien bat: kontsumoari, botiloari eta lonjen gaiei dagokienez.</li> </ul>

#### b. Herritarren eta Udalaren arteko harremana

Laudioko gazteak Udalarekin eta herritarrekin daukaten harremanarekin nahiko kritikoak dira. 12 eta 17 urte bitarteko gazteen % 48ak uste du Udala ez dela bat ere hurbiltzen gazteengana, % 26ak uste du apur bat hurbiltzen dela eta % 10ak hurbiltzen dela uste du. 18 eta 24 urte bitarteko gazteen kasuan, % 45ak uste du ez dela batere hurbiltzen, % 25ak apur bat hurbiltzen dela eta % 11ak uste du Udala gazteengana hurbiltzen dela. 25 eta 35 urte bitarteko gazteen iritzien inguruan % 48ak uste du Udala ez dela bat ere hurbiltzen gazteengana, % 32ak uste du apur bat hurbiltzen dela eta soilik % 1k uste du Udala gazteengana hurbiltzen dela.



Gazte gehienek iritzia da Udala gazteengana ez dela hurbiltzen. Diotenez, Udalak ahalegin gutxi egiten ditu eta gehienetan zurriz-ahaleginak dira. Gainera, betidanik horrela izan dela diote. Udalak ez du kontuan hartzen Laudioko gaztearen iritzia eta ekintzak euren kabuz antolatzen dituzte.

Gutxi batzuek esan dute Udalak gazteengana heltzeko ahaleginak egin dituela eta, horren adibide gisa, diagnostiko hau aipatu dute.

### **Gazte-planean zer kontuan hartu:**

Herritarren ustez, gazteen behar eta nahietatik abiatuta bideratu behar da gazteplana. Horretarako, gazteek diagnostikoa elkarrekin definitzeaz gain, zenbait proposamen zehatz egin beharko liratekeela uste dute. Antolatuta dauden gazteak ezinbestekoak dira lan honetan eta Udalak kontuan hartu behar ditu. Gazte mugimenduaren iritziz, Udalak traba gehiegi jartzen ditu ekintzak aurrera eramanez ahal izateko.

Gazte mugimenduz gain, Udalak horrelako ekintzak (diagnostikoak, ekintzen definizioak) herriaren esku utzi beharko lituzkeela aipatu dute herritar batzuek. Zentzu horretan, Udalaren funtzioa ekintza aurrera eramateko bermea ematera murriztu dute. Azken batean, lan horretan Udalak bitartekoak jarri beharko lituzke eta ez luke besterik egin behar. Laburbilduz, Udalak “bidea erraztu edo koordinatzaile papera hartu beharko luke.”

Teknikarien ustez, Udal Arlo guztiak kontuan hartu beharko lirateke: Hirigintza, Kultura, Kirola, Berdintasuna, Euskara.... Gazteen gaia zeharkakotasunez txertatu beharko litzateke Udal Arloetan. Udalak antolatzen dituen ekimen guztietan gazteen papera nolakoa den aztertzea proposatzen dute. Horretarako, gazteek protagonista eta ekintzen motor izan beharko luketela diote zenbait teknikaririk.

### **c. Udalaren antolakuntza**

Udal teknikarien ustez, Udalean koordinazio eskasa dago. Teknikarien aburuz, udal gobernu-aldaketak etena eta lan-berregituraketa suposatzen du. Askok sentitzen dute ez dagoela egonkortasunik eta jarraitutasunik egiten den lanean. Zeharkako Arloetako langileek sentitzen dute ez dela gaia baloratzen, ezta ulertzen ere, koordinazioa eta elkarlana garatzeko beharra sumatu dute askok. Teknikari batzuek orain arte egiten den guztia



birplanteatzeko beharra sentitzen dute eta Udal Arlo bakoitzaren funtzioak, irizpideak eta helburuak ondo definitu beharra.



## Laudioko I. gazte-planaren ildo orokorrak

### HEZKUNTZA

#### Helburuak

- Balio-hezkuntza indartzea eta hobetzea, hezkuntzaren eremu formalean zein ez formalean.
- Gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzea.
- Jendarteko eta hezkuntzako eragile guztiak hezkuntza-politika bateratuan biltzea.
- Hezkuntza ez formaleko eskaintza gazteen beharren eta interesen arabera diseinatzea.

#### Esku hartzeko ildoak

• Balio-hezkuntza indartzea eta hobetzea, hezkuntzaren eremu formalean eta ez formalean.	Eskolako eta eskolaz kanpoko ekintza guztietan balio-hezkuntza sustatu.
	Kulturartekotasuna hezkuntzaren arloan landu zeharka.
	Maila praktikoan balioen (errespetua, berdintasuna, elkartasuna, aniztasuna, ingurumenarekiko errespetua etab.) lanketa bultzatuko duten proiektuak sustatu.
• Gazteen hizkuntza-gaitasuna hobetzea.	Belaunaldi arteko harremana sortu eta garatzeko ekimenak planifikatu.
	Hizkuntza desberdinen ezagutza indartzeko baliabide eta tresnak sortu eta gazteen esku jarri.
• Jendarteko eta hezkuntzako eragile guztiak hezkuntza-politika bateratuan biltzea.	Euskararen erabilera hezkuntza ez formalean eta informalean bultzatu.
	Herriko hizkuntza-aniztasuna hezkuntzaren eremuan ikusarazi eta landu.
	Ikastetxeek Udalarekin eta eragile sozialekin lankidetzat bultzatzeko esparruak sortu.
• Hezkuntza ez formaleko ikastaro-eskaintza gazteen beharren eta interesen arabera diseinatzea.	Gurasoek heziketan egiten duten lanaz eta parte-hartzeaz kontzientziatu.
	Ikasleen parte-hartzea handitzeko estrategia; baliabide eta tresnak sortu eta indartu.
	Hezkuntza ez formaleko eskaintzaren azterketa egin.
	Gazteei hezkuntza ez formaleko eskaintzaren berri emateko teknologia berriak erabili (Whatsapp, sare sozialak...).



	Gazteen prestakuntza-beharrak identifikatu eta eremu ez formalean landu.
	Hezkuntza ez formaleko ikastaro eta ekintzetan gazteentzako diru-laguntzak sortu.
	Gazteak berak izatea hezkuntza ez formaleko ikastaroen emaila.
	Teknologia berrien inguruan gazteak hezi.





## ENPLEGUA

### Helburuak

- Gazteriari zuzenean bideratutako enplegu-politikak sortzea.
- Udaletik Laudioko gazteentzako lanpostuak sortzea.
- Enplegua eta prestakuntza:
  - Gazteen enplegurako lanpostu, laguntza, diru-laguntza eta abarren inguruko informazioa zabaltzea.
  - Lanerako etengabeko prestakuntza eta orientazioa bultzatzea gazteen artean.
- Enplegua eta ekintzailtza:
  - Gazteen artean ekintzailtza bultzatzea.

### Esku-hartze ildoak

Gazteriari zuzenean bideratutako enplegu-politikak sortzea.	Udalaren enplegurako politika koordinatuan gazte ikuspegia txertatu.
Udaletik Laudioko gazteentzako lanpostuak sortzea.	Enpresa txiki eta ertainek 30 urte beherako herritarren kontratazioa bultzatzeko pizgarriak sortu.
Enplegua eta prestakuntza <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteen enplegurako lanpostu, laguntza, diru-laguntza eta abarren inguruko informazioa zabaltzea.</li> <li>• Lanerako prestakuntza eta orientazioa bultzatzea gazteen artean.</li> </ul>	Enpleguaren inguruko informazioa Udalean zentralizatu eta era koordinatuan kudeatu.
	Laudion sortzen diren lan-eskaintzak biltzen dituen web-orri dinamiko bat sortu.
	Enplegu-bulego edo harrera-puntu gehiago jarri (fisikoak, birtualak).
	Laudioko lan-eskakizunei erantzuna emateko udal poltsa bat sortu.
	Enplegua bilatzen duten gazteei laguntzeko eta prozesu horretan babesa emateko programa bereziak sortu.
	Lan-merkatuaren egiazko beharretara egokitu prestakuntza-eskaintza.
	Lan-orientaziorako zerbitzuan gazteei zerbitzu bereziak eskaintzea.
Gazteen artean ekintzailtza bultzatzea.	Politika koordinatu baten bidez gazteen ekimen eta proiektu berriak bultzatu.



## ETXEBIZITZA

### Helburuak

- Gazteek etxebizitza lortzeko dituzten aukerak hobetzea, etxebizitzaren eskaintza handitzearen eta alokairua lehenestearen bidez.
  - Etxe hutsen arazoa aztertzea.
  - Alokairu babestua indartzea.
- Etxebizitza-eredu berriak garatzea eta informazioa sustatzea.

### Esku-hartze ildoak

Gazteek etxebizitza lortzeko dituzten aukerak hobetzea, etxebizitzaren eskaintza handitzearen eta alokairua lehenestearen bidez <ul style="list-style-type: none"> <li>○ Etxe hutsen arazoa aztertzea.</li> <li>○ Alokairu babestua indartzea.</li> </ul>	Laudioko etxe hutsen egoera aztertu diagnostiko baten bidez.
	Hutsik dauden etxebizitzak erabilarazi Etxebide programaren bidez eta gazteei lehenetsuna eman.
	Gazteen emantzipazioa bultzatzeko alokairu merkeak eta publikoak sustatzeko neurriak hartu.
	Laudioko etxebizitza publikoen poltsa handitu eta hauek gazteei bideratzeko neurriak hartu.
	Alokairu babestuko etxebizitzaren eraikuntza sustatu.
Etxebizitza-eredu berriak garatzea eta informazioa sustatzea.	Gazteei informazioa, orientabideak eta laguntza eskaini etxebizitza lortzeko neurri publikoen inguruan.
	Etxebizitzak konpartitzeko etxekideen poltsa bat sortu.



## OSASUNA

### Helburuak

Osasuna orokorrean:

- Gazteek osasun zerbitzu eta programak ezagutzea eta egoki erabiltzea.
- Gazteek jokabide osasungarri gehiago izatea bultzatzea.

Sexu heziketa:

- Sexu heziketaren inguruko gazteen ezagutza sakontzea.
- 18 urtetik aurrerakoan artean sexu heziketan sakontzea.

Droga kontsumoa:

- Drogen kontsumoaren inguruko informazioa gehiago zabaltzea ikastetxez aparte.
- Aisialdirako eskaintza zabalagoa sortzea.

### Esku-hartze ildoak

<p>Osasuna orokorrean</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteek osasun zerbitzu eta programak ezagutzea eta egoki erabiltzea.</li> <li>• Gazteek jokabide osasungarri gehiago izatea bultzatzea.</li> </ul>	Gazteei zuzendutako osasun programak ezagutzera eman.
	Dauden programen inguruko informazioa gazteen artean zabaltzeko bitartekoak ezarri.
	Osasun-hezkuntza sustatu.
	Aisialdiko, denbora libreko, kulturako eta jarduera fisikoekin lotutako gazteei zuzendutako proiektu eta programak indartu.
<p>Sexu heziketa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sexu heziketaren inguruko gazteen ezagutza sakontzea.</li> <li>• 18 urtetik aurrerakoan artean sexu heziketan sakontzea.</li> </ul>	Orain arte Laudion aurrera eraman ohi diren sexu heziketa lantzeko ikastaro eta zerbitzuei eutsi.
	Sexu informazioa emateko bulego fisiko edo birtual bat sortu.
	18 urtetik gorako gazteei sexu aholkularitza emateko zerbitzu bat eta programak martxan jarri eta sustatu.
<p>Droga kontsumoa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Drogen kontsumoaren inguruko informazioa gehiago zabaltzea</li> </ul>	Gazteei zuzendutako aisialdi eta kultur ekintzak sustatu.
	Drogen informazioa zabaltzeko bitartekoak ipini.
	Droga-menpekotasunaren inguruko kontzientziazio-



ikastetxez aparte.	kanpainak egin.
• Aisialdirako eskaintza zabalagoa sortu	Gazteen lonjetan drogen kontsumoaren inguruko egitasmoak martxan jarri.
	Drogen gaia landuko duen bulego bat sortu (fisikoa edo birtuala).



## JENDARTE EKINTZA

### Helburuak

#### GENERO BERDINTASUNA

- Gazteen arteko eraso sexistak saihestea.
- Genero berdintasuna lantzen duten gazte taldeak sustatzea eta egiten duten lana babestea.
- Generoen arteko aukera berdintasuna sustatzeko ekimenak sortzea.

#### SEXU-NORTASUNA

- Sexu-nortasunaren gaian dagoen bazterketari aurre egitea.
- Sexu-nortasunaren aniztasunaren inguruan kontzientziatzea eta horren berri ematea.

#### IMMIGRAZIOA

- Etorri berri diren pertsonen inguruko sentsibilizazioa lantzea.
- Aniztasun kulturalaren inguruan kontzientziatzea.

#### EGOERA POLITIKO ETA KULTURALA

- Herriko gazteen egoera ekonomikoa hobetzeko eta kultura duina izateko bitartekoak sortzea.
- Herritarren arteko bizikidetza sustatzea.

#### Esku-hartze ildoak

Genero Berdintasuna <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteen arteko eraso sexistak saihestea.</li> <li>• Genero berdintasuna lantzen duten gazte taldeak sustatzea eta egiten duten lana babestea.</li> <li>• Generoen arteko aukera berdintasuna sustatzeko ekimenak sortzea.</li> <li>• Genero indarkeria</li> </ul>	Emakumeentzako topalekuak sortu.
	Gizonezko gazteak aukera berdintasunerako gaietan sentsibilizatu.
	Hezkidetza ikastetxeetan landu.
	Herriko gune ilunak identifikatzea eta arriskua murrizteko bideak sortu.
	Genero indarkeriaren aurkako kanpainak gazteei bideratu.
	Genero indarkeriaren aurrean, zero tolerantzia sustatu.



<p>jendarteko lehen mailako arazo dela jabearaztea gazteei.</p>	<p>Genero indarkeriaren adierazpen ezberdinak (mikromatxismoak eta mikroindarkeriak) gazteen artean landu.</p>
<p>Sexu-nortasuna:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Sexu-nortasunaren gaian dagoen bazterketari aurre egitea.</li> <li>• Sexu-nortasunaren aniztasunaren inguruan kontzientziatzea eta horren berri ematea.</li> <li>•</li> </ul>	<p>Sexu-nortasunaren ereduaren inguruko lanketa egin.</p>
	<p>Sexu-nortasuna alde batera utzita, pertsonaren baloreak indartu.</p>
	<p>Sexu-nortasuna desberdinak ikusarazi.</p>
<p>Immigrazioa</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Etorri berri diren pertsonen inguruko sentsibilizazioa lantzea.</li> <li>• Aniztasun kulturalaren inguruan kontzientziatzea.</li> </ul>	<p>Iritsi berrien inguruan eta aniztasun kulturalaren inguruan sentsibilizatu.</p>
	<p>Herriko kultura eta jatorri desberdinen inguruko egunerokotasuna eta ohiturak ezagutzera emateko ekintzak bultzatu.</p>
	<p>Aniztasun kulturalaren eta pertsona etorri berrien inguruko aurreiritziak eta zurrumurruak lantzeko ekimenak abian jarri.</p>
<p>Egoera politiko eta kulturala</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko gazteen egoera ekonomikoa hobetzeko eta kultura duina izateko bitartekoak sortzea.</li> <li>• Herritarren arteko bizikidetzaren sustatzea.</li> </ul>	<p>Herriko eragile eta talde kulturalari babes handiagoa ematea.</p>
	<p>Gazteen artean ematen den bazterkeria prebenitzeko programak martxan jarri (aniztasuna eta gizon-emakumeen arteko desberdintasunak).</p>
	<p>Diru-sarrerak bermatzeko politika gazteen beharretara egokitzeko neurriak hartu.</p>
	<p>Eskoletan bakerako eta bizikidetzarako hezkuntza programak sustatu.</p>



## KULTURA

### Helburuak

#### KULTURA

- Gazteek kultura berdintasunez eskura dutela ziurtatzea.
- Gazteen kultura sortzaile izatea bultzatzea.
- Kultura eskaintza eta adierazpenak sortzean, hizkuntza aniztasuna, kultura aniztasuna eta genero aniztasuna kontua izatea.

#### EUSKARA

- Euskararen erabilera esparru ez formaletan bultzatzea.
- Gazteen artean euskararen erabilera indartzea.

#### PARTE HARTZEA ETA ELKARTEGINTZA

- Gazte elkarten eta Udalaren arteko harremanen koordinazioa indartzea.
- Gazte elkarteak indartzea eta sustatzea.

Esku-hartze ildoak	
Kultura <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteek kultura berdintasunez eskura dutela ziurtatzea.</li> <li>• Gazteen kultura sortzaile izatea bultzatzea.</li> <li>• Kultura eskaintza eta adierazpenak sortzean, hizkuntza aniztasuna, kultura aniztasuna eta genero aniztasuna kontua izatea.</li> </ul>	Gazteei zuzendutako kultur eskaintza anitza sortu eta zabaldu.
	Herrian gazteentzako erreferentziatzeko kultur espazio bat eratu.
	Sortzailetasuna bultzatzeko baliabideak eta tresnak gazteen eskura jarri.
Euskara <ul style="list-style-type: none"> <li>• Euskararen erabilera esparru ez formaletan bultzatzea.</li> </ul>	Udal liburutegia gazteen beharretara egokitu (ikasgelak, wifia, ordutegi zabalpena).
	Zerbitzu eta arreta gune publikoak euskaraz eskaintzen direla bermatu. Zerbitzu publikoetatik kanpo, euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak eta ekintzak abiarazi.



<ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteen artean euskararen erabilera indartzea</li> </ul>	<p>Gune informaletan gazteen euskararen erabilera bultzatzeko ekimenak martxan jarri eta indartu.</p>
<p>Parte-hartzea eta elkartegintza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazte elkarten eta Udalaren arteko harremanen koordinazioa indartzea.</li> <li>• Gazte elkarteak indartzea eta sustatzea.</li> </ul>	<p>Aisialdi ekintzak antolatzen dituzten gazte elkarte publiko eta pribatuentzat diru-laguntza gehiago eskaini.</p> <p>Gazte talde eragileen betekizun burokratikoak arindu.</p> <p>Auzoetako jaiak laguntzeko eta sustatzeko ekimen espezifikoak abian jarri.</p> <p>Gazte talde ezberdinekin elkarlana bultzatzeko ekimenak abian jarri (kultur egun bat antolatzea).</p> <p>Herri nortasuna sustatuko duten ekimen gehiago antolatu edo sustatu.</p> <p>Gazteei hitza ematen dieten prozesu parte-hartzaileak sustatu.</p> <p>Udaleko Gazteria Arloaren eta gazte elkarten arteko harremanak sustatu.</p>





## AISIALDIA

### Helburuak

#### AISIALDIA

- Gazteei zuzendutako aisialdi eskaintza zabaltzea eta gazteen interes eta beharretara egokitzea.
- Aisialdirako espazioak sortzea edota daudenak egokitzea.
- Gazteen artean hain zabaldua dagoen lonjen fenomeno aztertzea.
- Laudio gazteentzako aisialdiko erreferente bihurtzea eskualde osoan.

#### KIROLA

- Herriko kirol eskaintza birplanteatzea, gazteen beharretara egokituta.
- Emakume gazteentzako kirol eskaintza zabaltzea.
- Herriko kirol instalazioen egoera hobetzea.
- Gazte eta herritar guztientzako kirol instalazioen irisgarritasuna eta eskuragarritasuna bermatzea.

#### HARREMANAK

- Herriko gazteen arteko harremanak sendotzea.
- Gazte lonjen arteko harremanak sustatzea.

#### TEKNOLOGIA BERRIAK

- Gazteen eta teknologia berrien arteko harremanaren azterketa eta erabilera onen indartzea.
- Udalaren informazioa zabaltzeko euskarriak teknologia berrietara moldatzea.
- Teknologia berrietara heltzeko baliabideak gazteen eskura jartzea.

Esku-hartze ildoak	
Aisialdia <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteei zuzendutako aisialdi eskaintza zabaltzea eta gazteen interes eta beharretara egokitzea.</li> </ul>	Aisialdi eskaintza urtaroetara moldatu (udan eskaintza gehiago kalean, neguan estalitako espazioen erabilera,...)
	Gazteei zuzendutako aisialdi eskaintza dibertsifikatu.
	Herriko gazte koadrila eta elkarteekin elkarlanetik sortutako ekintza gehiago martxan jarri.



<ul style="list-style-type: none"> <li>• Aisialdirako espazioak sortzea edota daudenak egokitzea.</li> <li>• Gazteen artean hain zabaldua dagoen lonjen fenomenoaren aztertzea.</li> <li>• Audio gazteentzako aisialdiko erreferente bihurtzea eskualde osoan.</li> </ul>	Gazteek beraiek sortutako aisialdiko ekintzak sustatu eta lagundu.
	Antolatzen den eskaintzaren komunikaziorako estrategiak hobetu eta birplanteatu.
	Laudioko gazte lonjen fenomenoaren azterketa egin.
	Herriko eta eskualdeko gazteen beharrak kontuan izan aisialdi eskaintza sortzerakoan.
<p>Kirola:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko kirol eskaintza birplanteatzea, gazteen beharretara egokituta.</li> <li>• Emakume gazteentzako kirol eskaintza zabaltzea.</li> <li>• Herriko kirol instalazioen egoera hobetzea.</li> <li>• Gazte eta herritar guztientzako kirol instalazioen irisgarritasuna eta eskuragarritasuna bermatzea.</li> </ul>	Kirol eskaintza sortzerakoan gazteen iritzia kontuan hartu.
	Emakume gazteentzako ikastaro eta eskaintza espezifikoa sortu.
	Kirol instalazioak erabiltzeko gazteentzako deskontuak martxan jarri.
	Kirol instalazioen egoera aztertu eta hobetu.
	Ezintasunak dituzten gazteentzako kirol instalazioak egokitu.
	Kirol ikastaroetan gazteentzako deskontu eta neurri espezifikoak sortu.
<p>Harremanak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko gazteen arteko harremanak sendotzea.</li> <li>• Gazte lonjen arteko harremanak sustatzea.</li> </ul>	Gazteak euren artean elkar ezagutzeko ekintza anitzak sustatu.
	Gazte elkartearen arteko harremanak indartu.
	Gazte lonjen arteko ezagutza indartzeko ekintzak bultzatu.
	Herriko gazte lonjen diagnostiko espezifikoa bat egin (kopurua, kokapena, erabilera motak,...)
<p>Teknologia berriak:</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazteen eta teknologia berrien arteko harremanaren azterketa eta erabilera onen indartzea.</li> <li>• Udalaren informazioa zabaltzeko euskarriak teknologia berrietara moldatzea.</li> <li>• Teknologia berrietara heltzeko baliabideak gazteen eskura jartzea.</li> </ul>	Gazteak teknologia berriekin daukaten harremana aztertu.
	Gazteak teknologia berrien erabilera egokian hezi.
	Udala gazteekin komunikatzeko teknologia berriak erabili (whatsapp, sare sozialak...).
	Gazteei zuzendutako aisialdi eskaintzaren barruan teknologia berriak kontuan izan (bideo joko lehiaketak,..)
	Teknologia berrien gela bat sortu (ordenagailuak, tabletak, mugikorrak... dituen).



## KONTSUMOA

### Helburuak

- Kontsumo ohitura eta jarrera osasuntsuak sustatzea.

Esku-hartze ildoak	
Kontsumoa <ul style="list-style-type: none"><li>• Kontsumo ohitura eta jarrera osasuntsuak sustatzea.</li></ul>	Ingurumenaren aldetik iraunkorren diren kontsumo ohiturak sustatu.
	Genero ikuspegiak kontsumitzeko moduan duen eraginaren inguruan gazteak kontzientziatu.
	Dirurik erabili gabe egin daitezkeen ekintzak sustatu.
	Gazteak kontsumitzeko hezi eta prestatu.
	Elikagaiak, teknologia berriak, aisialdia eta bestelako produktuak arduraz kontsumitzea indartu.



## MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

### Helburuak

#### MUGIKORTASUN IRAUNKORRA

- Herrigunetik auzoetara doazen komunikabideak hobetzea.
- Garraio publikoa gazteentzako eskuragarri jartzea.
- Herrian kalteturik dauden komunikabide azpiegiturak hobetzea eta konpontzea.
- Herriko azpiegituren garbitasuna hobetzea.

#### SEGURTASUNA

- Herriko kaleak eta ibilbideak seguruagoak bihurtzea.

#### ANIZTASUN FUNTZIONALA

- Zailtasun fisikoak dituzten pertsonentzat herri barruko mugikortasuna hobetzea.

Esku-hartze ildoak	
Mugikortasun iraunkorra <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herrigunetik auzoetara doazen komunikabideak hobetzea.</li> <li>• Garraio publikoa gazteentzako eskuragarri jartzea.</li> <li>• Herrian kalteturik dauden komunikabide azpiegiturak hobetzea eta konpontzea.</li> <li>• Herriko azpiegituren garbitasuna hobetzea.</li> </ul>	Garraio publikoa erabiltzeko gazteei pizgarriak ematea.
	Garraio publiko sarearen inguruko informazioa gazteen artena zabaldu.
	Herrigunetik auzoetara doazen bidegorriak sortu/hobetu.
	Garbitasuna mantentzeko baliabideak jarri (txakurrentzako gunea, paperontzi gehiago...).
	Herrigunetik auzoetara doazen bidegorri berriak sortu.
	Bizikletaren erabilera sustatzeko aparkaleku berriak sortu (tren geltokian, ikastetxeetan, kiroldegian, taberna guneeetan...).
	Oinezkoentzako kaleak egiten jarraitu.
Segurtasuna <ul style="list-style-type: none"> <li>• Herriko kaleak eta ibilbideak seguruagoak bihurtzea.</li> </ul>	Arrisku egoeretarako herritarren laguntzaile sare bat sortu.
	Aparkalekuetan oinezkoak errespetatzeko neurriak hartu.
	Gune ilunetan LED argi sistema gehiago erabili.



	Gauetan udaltzainen presentzia handitu.
Aniztasun funtzionala <ul style="list-style-type: none"> <li>• Zailtasun fisikoak dituzten pertsonentzat herri barruko mugikortasuna hobetzea.</li> </ul>	Gazteek erabiltzen dituzten azpiegitura publikoetan irisgarritasuna bermatu.
	Zailtasun fisikoak dituzten pertsonen irisgarritasun oztopoen inguruan gazteak kontzientziatu.



## UDALA

### Helburuak

#### UDALAK BIDERATZEN DITUEN EKINTZAK

- Gazte planean proposatutako helburu eta esku-hartze ildoak kontuan hartuta, ekintza plan bat zehaztea.
- Udalean gazteen parte-hartzea ziurtatzea.
- Gazteek eta gazte eragileek proposatutako ekintzak aurrera eramaten laguntzea.
- Udalak antolatzen dituen ekintzen komunikazio estrategiak aztertzea eta hobetzea.

#### HERRITARREN ETA UDALAREN ARTEKO HARREMANAK

- Udalaren eta herritarren arteko harremanak zuzenagoak egitea.
- Udal burokrazia arintzea.
- Komunikazio bideak aztertu eta hobetzea.
- Gazte-planean gazteen iritzia kontutan hartzea.
- Errespetuan oinarritutako harremanak bultzatzea.

#### UDAL ANTOLAKUNTZA

- Udalaren barne koordinazioa eta langileen arteko harremanak hobetzea.
- Gazteen gaia landuko duen lan talde sortzea.

Esku-hartze ildoak	
Udalak bideratzen dituen ekintzak: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gazte planean proposatutako helburu eta esku-hartze ildoak kontuan hartuta, ekintza plan bat zehaztea.</li> <li>• Udalean gazteen parte-hartzea ziurtatzea</li> <li>• Gazteek eta gazte</li> </ul>	Gaur egun gazteentzako antolatzen diren ekintzek proposatzen diren helburu eta esku-hartze ildoak betetzen dituzten aztertu.
	Ekintza plana garatu, arloz arlo eta teknikariek kontrastatuta.
	Ekintza plana gazteekin kontrastatu.
	Gazteek Udalean partehartzeko tresnak sortu eta indartu.
	Gazteek eta gazte eragileek (taldeek) proposatzen dituzten ekintzak aurrera eramateko baliabideak diseinatu eta martxan jarri.



<p>eragileek proposatutako ekintzak aurrera eramaten laguntzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalak antolatzen dituen ekintzen komunikazio estrategiak aztertzea eta hobetzea.</li> </ul>	Gazte elkartegintza bultzatu eta indartu.
	Udalak erabiltzen dituen komunikazio bideak berritu (teknologia berriak).
	Udal ekintzen berri emateko ahal beste bitarteko (udal pantailatik, ikastetxeetatik, gazte lokalak etab.) erabili.
<p>Herritarren eta Udalaren arteko harremana</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalaren eta herritarren arteko harremanak zuzenagoak egitea.</li> <li>• Udal burokrazia arintzea.</li> <li>• Komunikazio bideak aztertu eta hobetzea.</li> <li>• Gazte-planean gazteen iritzia kontutan hartzea.</li> <li>• Errespetuan oinarritutako harremanak bultzatzea.</li> </ul>	Gazteengana hurbiltzeko langile kualifikatuak (hezitzaileak, etab.) erabili.
	Harremanak errespetutik abiatu, entzutea eta elkarlana sustatuz.
	Udalaren funtzionamendua gazteek ulertzeko moduko gida batean azaldu.
	Gazte bulego bat sortu. Gazteei informazioa emateaz gain, gazteen ekimenak bultzatzea helburu nagusizat izango duena.
	Udalak gazteen eta beste instituzioen arteko zubigintza lana egiteko bitartekoak sortu eta martxan jarri.
	Gazte-planeko ekintza planean gazteek proposatutako ekintzak kontuan izan.
<p>Udalaren antolakuntza</p> <ul style="list-style-type: none"> <li>• Udalaren barne koordinazioa eta langileen arteko harremanak hobetzea.</li> <li>• Arlo bakoitzaren funtzioak eta betebeharrak definitzea.</li> <li>• Gazteen gaia landuko duen lan talde sortzea.</li> </ul>	Udal mailako barne koordinazioa eta langile arteko harremanak hobetzeko beharra beste arloetara helarazi.
	Arlo guztien funtzioak eta betebeharrak zehaztu, gazte gaiaren inguruan.
	Jendarte gaietan dabilzan teknikariek lantaldea sortu (euskara, kultura, berdintasuna, gizarte zerbitzuak...).
	Gazte-plana garatzeko lantaldea sortu.
	Udaleko teknikariek gazteen inguruko gaietan trebatzeko saioak eskaini.

